



# Jakingarriak

## Haur hezkuntza (0-3 urte) jakintza zientifikoaren argitan:

galderak, erronkak eta proposamenak (II)



**Argitaratzailea:** Mondragon Unibertsitatea  
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

**Laguntzailea:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

**Erredakzioa:** Mondragon Unibertsitatea  
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Dorleta auzoa z/g  
20540 Eskoriatza  
Tfnoa: 943-714157  
Faxa: 943-714032  
E-mail: [liburutegia@huhezi.edu](mailto:liburutegia@huhezi.edu)  
[www.huhezi.edu](http://www.huhezi.edu)

**Zuzendaritza:** Nerea Alzola.

**Erredakzio Kontseilua:** Pello Añorga, Alexander Barandiaran,  
Iñaki Larrea eta Rafael Cristobal

**Erredakzio idazkaria:** Mari Karmen Apraiz

**Itzultzailea:** Iñaki Mendiguren

**Euskara zuzentzailea:** Karmele Pérez

**Diseinua:** Maddi Trutxuelo

**Inprimategia:** Antza inprimategia

**L.G.:** SS-981/92

## BERRI BIBLIOGRAFIKOAK


- 4 Liburu berrien albisteak
- 7 Artikulu aipagarriak
- 10 Esan dute

## GAI MONOGRAFIKOA

### Haur hezkuntza (0-3 urte) jakintza zientifikoaren argitan: galderak, erronkak eta proposamenak (II)

- 12 **Rafael Cristóbal**  
Hitzaurrea: Haurra familiaren eta eskolaren artean
- 14 **Karin Grossmann**  
Atxikimendua eta haurra taldean zaintzea: elkarrekin aurrera
- 28 **Marinus H. Van Ijzendoorn**  
Haur-eskolak ebaluatzearen arrazoiak
- 38 **Josune Etxabe**  
Haurraren eta hezitzailearen arteko harremana
- 42 **Karin Grossmann**  
Taldekako zainketa: kalitate onaren adierazleak
- 55 **Baliabideak**  
Libros con estrella

# Liburu berrien albisteak



Torralba, F. (2001)

***El silencio: un reto educativo.***

Madrid: PPC

Isiltasuna, ez da hitzaren gabezia, baizik eta bizitzarako elementu beharrezkoa eta oinarritzeko hazia.

Isiltasuna, mendeetan, filosofo eta pentsalarientzat gai garrantzitsua izan da eta haiek sarritan azpimarratu dute haren giza eraikitzaile karakterra. Isiltasuna barne mundurako atea da, bakoitzaren, bestearen eta munduaren misterioari sarrera ematen dion bide nagusia.

Baina, unean, gizarte eta mundu zaratzatsuan murgildurik gaude; isiltasuna egitea, "isilik" bizitzea, isilta-

sunerako espazioak aurkitzea, benetako abentura bihurtu da mundu honetan. Isiltasuna erbestera dugu gure bizitzatik eta egoera honek gure garapen osoari trabak ari da jartzen.

Gure herrikide asko Ekialdeko espiritualitate bila dabil eta, agian, gure isiltasun faltaren adierazgarri bat besterik ez da. Bestalde, hezkuntza eta enpresa mailan, kalitateaz hitz egiten denean, entzumenari, arretari, enpatiarri buruzko kontzeptuak erabiltzen dira; eta garbi dago, ez dagoela entzumenik, enpatiarik, harremanik ez baldin bada go iziltasunik. Edo arteari (pintura, musika, etab.) buruz hitz egiten dugunean, funtsean, isiltasunari buruz ari gara. Beraz, esango genuke isiltasunaren egarri garela.

Francesc Torralba Ramon Lull Unibertsitateko filosofia irakaslea da eta "Federación Catalana del Voluntariado Social" deritzan elkartearen lehendakari ordea da. Estilo erres eta zuzenean gai honetaz idazten du pentsalari honek: isiltasunaren dignitatea, haren oinarritzeko funtzioa hezkuntzan eta garapenean, isiltasun mota desberdinak, gorputzaren eta isiltasunaren arteko harremana, etab.

Garbi dago liburu hau ez dela izan "best-seller"-a, baina dudarik gabe eskaintzen digun gaiak aukera ematen digula erreflexionatzeko eta gelditzeko unea. Liburu bitxia, "isila", interesgarria eta, gure ustez, gaurkotatzen handikoa.

Nerea Alzola  
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea



Ramirez de Okariz Telleria, I. (2003)

**Antzuolako Ohitura Zaharrak.**

Antzuola: Antzuolako Udala

Aspaldiko esaldia da zera esaten duena:

*“Gazteek ez dakite beren anai-arreba zaharragoek dakiten bezainbeste; eta horiek, jakina, guraso edo aiton-amonek dakitena baino gutxiago dakite.”*

Denbora ez dago gure alde, gero eta zailagoa da usadio eta ohitura zaharrekin lotuta egon den jendea aurkitzea. Zenbaitetan berandu ere bagabiltza. Beraz, galtzen ari zaigun kultura berandu izan baino lehen jasotzea du helburu lan honek.

Agian belaunaldiko etenak eta informazioaren galarak lehen baino handiagoak dira orain. Garai bateko familia egiturak eta ohiturak aldaturik, egun antzinako informazio hori ez da familian transmititzen; ez baitago mahaian jarrita egon eta nagusiek “gerra garaikoaz” esaten dutena entzuteko denborarik, egiturarik.

Ikerketa hau behaketan, ahozko informazioan eta artxi-boko lanean oinarrituta dago. Ez da urtebetean edo bitan egindako lana, baizik eta urteetako bizipenen emaitza.

Urteetako behaketari esker, gizarte bateko hainbat arlotan izandako bilakaera jasotzen da. Behaketak kezka sortzen ditu eta horiek argitzeko ezinbestekoa da, besteak beste, protagonistekin egon eta galdera eta harreman natural batzuen bidez, erantzunen bila hastea.

Harreman naturala aipatu dut, eta egia da. Herritarra izateak, eta lan hauetan ezaguna, lekukoekin harreman pertsonal zuzena eta garbia izatera eraman naute, eta, ondorioz, jasotako informazioa aberatsagoa eta irekiagoa izan da.

Gizatalde baten barruan norbera kulturizatu izana ere abantaila da. Ni neu naiz aztertzen ari naizen kultura horren bizipenak edo nolabaiteko oroitzapenak jaso

izandakoa. Eta horrek, bide batez, eman dit aukera aztertzeiko norik eman diezadakeen ari naizen gaiei buruzko informazioa. Beraz, bizirik dauden lekukoekin hitz egiteak gaia sakontzeko aukera ematen du.

Hala ere, eta lan hauen guztien aitzindaria izan zen Jose Migel Barandiaranen hitzak berreskuratuz:

*“Landa ikerketek sistematikoak izan behar dute; alegia, ez dute elementalak izan behar. Ikerketa elementalean kulturaren baitako elementuak bakanka aztertzen dira: ermitak eraikin bezala aztertzen dira, edo ogia nola egin. Baina ikerketa sistematikoak kultur sistemaren baitan aztertzen du elementu hori; beraz, laborantzarako tresna bat ikertzerakoan, laborarien bizimodua, etab. aztertu beharko lirateke”.*

Jakin badakit lan ikerketa hau beste askoren hasiera besterik ez dela, eremu zabala ukitzeak horixe baitakar; hau da, jakintza handiago den heinean, sortzen den jakin-mina handiago bihurtzen da. Ondorioz, lanari ez zaio inoiz bukaerarik ikusten. Beraz, asko aztertu da, gustura egoteko bezala gaude, baina oraindik ere beste hainbeste falta da. Eta berandu izan baino lehen, ekin beharko diogu berriro lanari.

Iñigo Ramirez de Okariz

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea



Moreno V. (2003)

**“Leer con los cinco sentidos”.**

Iruñea: Pamiela,

“Irakurtzea idaztea baino zailagoa da”. Baieztapen horretan oinarritzen da idazle eta irakaslea den Victor Moreno bere azken liburuan *–Leer con los cinco sentidos (Zentzumen guztiekin irakurri)–* aurkezteko. “Ondo irakurtzeko bestearen pentsamenduaren peskizan ibili be-

har da” dio Morenok, “eta ezagutu behar dira beraz bere iruditeria, bere egiturak, bere esanahiak”.

Liburua egungo hezkuntza sistemaren aurkako kritika ere bada. “Eguno hezkuntza sistema ez da irakurri nahi ez duten haurrengatik errudun, baina bai irakurtzen ez dakitenengatik. Irakurtzea, finean, askea da; irakurtzera behartzea, kontraesana”. Moreno **El deseo de leer**. Iruñea: Pamiela, 1994 liburuaren egilea da, eta Arturo Campion Iruñeko ikastetxean emandako urteetako esperientzia marrazten du liburuan.

“Irakurleari –ikaslea izanez gero– helburu bat eman behar zaio beti. Ikasleek ez badakite zertarako lan egin behar duten, ezin da beraiekin lan egin”. “Irakurtzeko zaletasuna pizteko helburu duten ekintzek pazientzia eskatzen dute, lasaitasuna, isiltasuna. Zergatik? Irakurketak bost zentzumenen arreta eskatzen duelako”. Ideia horietan oinarrituta, Morenok galderak pausatzen ditu gero: “Nola irakur daiteke bost zentzumenekin? Zer irakur daiteke bost zentzumenekin?” Eta erantzuna ere ematen du. Izan ere, Victor Morenorentzat liburuak jan egin daitezke, usaindu egin daitezke, ukitu egin daitezke, eta entzun ere entzun daitezke.

Pello Añorga

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

## ESKOLA INKLUSIBOA

Eskola inklusiboa (guztientzako eskola) azken bolada honetan hezkuntza mailan oso entzuna den terminoa bada ere, agian ez da ezagutzen sakontasunean bere esanahia eta, horrekin lotuta, eskola honek berarekin dakartzan baldintzak eta ezaugarriak. Segidan aholkatzen diren liburuak zein helbideak oso baliagarriak dira Eskola inklusiboa hobeto ezagutzeko.

### Liburuak:

Stainback, S.; Stainback, W. (2001)

**Aulas inclusivas**. Madrid: Narcea.

Ainscow, M. (2001). **Desarrollo de escuelas inclusivas. Ideas, propuestas y experiencias para mejorar las instituciones escolares**. Madrid: Narcea.

Bi liburuak osagarriak izan daitezke eskola benetan inklusiboa sortzeko behar diren baldintzen planteamenduari dagokionez.

Lehenengo liburuan Susan eta William Stainback-ek orientabideak ematen dituzte zentratzeko nola sus-

tatu hezkuntza inklusiboa, eta edozein gela motari egokituko zaion curriculum diseinatu, egokitu eta proposatzen dute. Estatu Batuetako eta Kanadako esperientzia berritzaileenak azaltzen dituzte.

Bigarren liburuan, Mel Ainscow-k ideiak, gogoetak, proposamenak eta esperientziak azaltzen ditu, hainbat herrialdetan egindako ikerketekin lotutakoak, eta eskolako praktikan baliagarriak izan daitezkeen prozedura eta materialen deskribapenak ere sartzen ditu.

Bi liburuak gomendagarriak dira eskola berriz hausnartu nahi duten eskola-erakundeentzat.

Monereo, C (Koord.) (2000). **Instantáneas: Proyectos para atender a la diversidad educativa**. Madrid: Celeste

Liburu honen bidez zuzenean ezagutuko ditugu ikerlari talde batek estatu espainiarreko hainbat ikastetxetan egindako behaketak. Azaldutako esperientzia guztietan hainbat apustu agertzen dira, guztiak ere ezaugarri komun batekin: ikasle **guztiei** erantzutea.

Liburu oso gomendagarria da, praktikoa delako eta gure hezkuntza errealitateari oso hurbila.

### Interneteko helbideak:

[www.inclusioneducativa.cl/documentos](http://www.inclusioneducativa.cl/documentos)

Helbide oso interesgarria da. Atal bat du “interes tokiak” azaltzeko, eskola inklusiboarekin oso lotuak hainbat alderdiri dagokionez. Bestek beste, aipagarria da “dokumentuak” saila, guztiak gai honekin lotuak. Eta sail horren barruan honako hau azpimarra daiteke: [www.inclusioneducativa.cl/documentos/lecciones.PDF](http://www.inclusioneducativa.cl/documentos/lecciones.PDF) Dokumentu horretan Mel Ainscow-k hainbat herritako 6 hezkuntza-egoera azaltzen ditu (Txina, Ghana, Nikaragua...). Jite hezitzaile eta kulturaleko interpretazioa eskaintzen digu eta guztiontzako heziketaz gehiago hausnartzera garamatza. Zinez gomendagarria.

[www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net)

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko helbide honetan topa ditzakegu Donostian urriaren 29, 30 eta 31n ospatutako “Guztientzako eskola” biltzarren ponentziak.

Maite Garcia eta Agurtzane Martinez  
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasleak

# Artikulu aipagarriak



Yus, R. (2003). ¿Se debe educar la espiritualidad en la escuela laica? *Aula* 125, 73-77.

Idazleak, hezkuntza laiko akonfesionalaren aldekoa izanez, pentsatzen du hezkuntza integralean dimentsio espiritualak ezinbestekoa dela. Hari horri jarraituz, hark galdetzen dio bere buruari ia posible den hezkuntza laiko espiritualak jorratzea, hau da, erlijio konkretu bati lotu gabeko hezkuntza espiritualak.

Ez da galdera makala gure historia eta gure hezkuntzaren historia kontutan izaten baldin baditugu.

Autorearen esanetan, aipatutako asunto haiek erlijio- laizismoa dualismotik gainera daude, benetako erreferentia gizakiaren natura sakona izanik.

Artikulu interesgarria, behar dugulako, une honetan bereziki, gizon-emakumeen benetako dimentsio espiritualak errespetatzea eta lantzea.

(2003) Euskal testu liburugintza XXI. Mendearen atarian. *Hik hasi* 81, 8-15.

Hezkuntza da identitatearen sortzaileen artean garrantzitsuenetarikoa, gizataldeen hizkuntza eta kultura erreproduzitzen dituelako.

Artikulu honek ikerketa baten berri ematen du: Euskal Herriari buruz eskolan irakasten denak nolako ezagutza erreproduzitzen duen argitzea nahi duena.

Bertan azaltzen dira ikerketaren oinarriak, testu liburuen garrantzi, edukiak lekutzeko moduak etab. Gainera, oinarriko bibliografia eskaintzen digu.

Dokumentu interesgarria euskal curriculumak eta euskal eskolaren inguruan interesatuta daudentzat.

Díez, M. C.; Gómez, C. (2003) Reflexión a dos voces a la lumbre de Eduardo Galeano. Los discursos del decir, del hacer y del sentir. *Infancia*, 80, 17-23.

Artikulu hau bi pertsonen arteko korrespondentzia oinarrituta dago: bata, maistra da eta bestea, maisua; eta tartean Eduardo Galeano-ren bi obra (*El libro de los abrazos* eta *La escuela del mundo al revés*) inspirazio iturri moduan.

Galeano ezagutzen dugunok, badakigu oso "zirikatzailea" dena gure pentsaera eta barneko indarrak martxan jartzeko. Ba hori egin dute pertsona hauek: elkarrizketa hezkuntza eta bizitzako hainbat gai interesgarri inguruan (sormena, partehartzea, hezitzaileen funtzioa, etab.). Elkarrekin pentsatu, elkarrekin kritikatu eta sortu, elkarrekin idatzi.

Artikulu originala eta motibagarria.

Hoyuelos, A. (2003) El futuro de la pedagogía de Loris Malaguzzi. *Infancia* 79, 26-31.

Autoreak sakon ezagutzen du Malaguzzi italiar maisuaren pentsaera eta obra, haren doktoradutza tesia aurkeztu baitzuen Iruñean ez dela denbora asko.

Norbaitek ez badu ezagutzen aipatutako maisua hemen dauka aukera polita haren aberastasunari lehenengo hurbilpena egiteko. Eta ezagutzen baldin badu plazer bat da irakurtzea horrelako hezkuntza proposamen ederrak.

Medrano, C. (2003) ¿Cómo se aprende en la infancia a ser una buena persona? *Infancia* 81, 4-9.

Hezkuntza moralari buruz interesatuta dagoen irakurleak ezagutuko du EHUko Conchi Medrano irakaslea, honen ikerketa lerro eta interesgune garrantzitsuenetarikoa haurren hezkuntza integrala eta, honen barnean, hezkuntza moralak direlako.

Autoreak ahalegin handia egin du hezkuntza moralaren inguruan gai sakonak eta konplexuak biltzen eta sintesi ona eta hurbila eskaintzen.

Medrano tituluaren bertan definitzen da eta esaten digu zein den hezkuntzaren helburu nagusia: titulu bera izan dezake eztabaidatzeko material interesgarria.

Hezitzaile asko arduratuta dago hezkuntzako norabidearekin (zertarako hezkuntza? zertarako hezkuntza morala?, etab.) eta horrelako gaiekin: autonomia eta ardura soziala, helduaren funtzioa, zigorrak eta sariak, arauak eta baloreak, balore etikoen ereduak, etab. Beraz, eskertzekoa da gogoeta, zalantzak eta argitasunak emateko, sakon eta modu erresean, horrelako materiala aurkitzea.

Artikulu interesgarria eta konprometitua.

ETXANIZ, Xabier. (2003). "País Vasco: reconocimiento exterior". *CLIJ* 164, 64-68.

Urtero bezala, urteko balantzea eginez —2002. urteari buruzkoa, alegia—, hausnarketa egiten du Xabier Etxanizek euskal haur eta gazte literaturaz. Interesgarria deritzogu, horrela, urteko ekoizpenari gainbegiraturaz, egunean jar baikaitzke. Aurten, besteak

beste, bertan azaltzen dira sari garrantzitsuen hartzaileen izenak: Laida Martinez (Lazarillo saria), Felipe Juaristi (Irakurriz Bizi saria), Joanes Urkixo (Apirila saria), Aitor Arana (Bapore saria), Miren Agur Meabe (Euskadi saria) eta Imanol Azkue (Lizardi saria). Azaltzen dira baita ere itzulpen alorrean egindako lanek esanguratsuenak: Patxi Zubizarretaren *Mila gau eta bat gehiago*, esaterako. Eta beste hainbat lan ere azaltzen dira: poesia alorrean argitaratutako lanak; gure idazle "konsagratuek" egindako ekarriak; haur txikientzako irudi-liburuak, albumak, bilduma berriak, idazle berriak (Imanol Azkue, Leire Iradier, Mitxel Murua, Ruben Ruiz), gazte literatura saila eta abar.

Oro har, Xabier Etxanizek honela sintetizatzen du urteko uzta: "Barnean gozo eta kanpoan airoso". Kanpoan airoso, izan ere, azken urte honetan batez besteko balorazio honetan zerbait azpimarratu behar baldin badugu, kanpoan izan dugun harrera izango



Arizmendi ikastola. San Viator Txiki. Arrasate.




bailitzateke: euskal idazleek kanpoan izaniko onarpen handia, alegia. Dena den, gabeziak ere aipatzen ditu Xabierrek: komikiaren eza, antzerkiaren argitalpen eskasa edota aldizkariaren krisia.

URIBE, Veronica. (2003). "Sapo y los problemas de la vida". *CLIJ* 163, 22-27

Aurten 80 urte bete ditu Max Velthuijs idazle eta ilustratzaile holandarrak, haur literaturaren munduan oso ezaguna denak. Egia da ez dituela sari asko jaso, baina bere "Sapo" pertsonaiak, jada, arrakasta bermatua dauka haurren artean, munduko kontinente guztietan gainera, bai European, bai Amerikan —Hego Amerikan, batez ere—, bai Asian, etab. Dena den, nahiz eta

bere liburuak oso ezagunak izan, ez genuen Max Velthuijs idazleari buruzko elkarrizketarik ezagutzen. Zorionez, azken CLIJ honetan, izango dugu parada eta zoria bere obrari eta pentsamenduari buruz irakurtzeko; izan ere, bi artikulua agertzen baitira CLIJ honetan, zein baino zein interesgarriagoak biak. Bata elkarrizketa da; bestea, aldiz, haren lanari buruzko hausnarketa, bibliografia eta guzti. Eta egia esan, merezi dute benetan. A zelako gozamen!

Zer dauka "Sapo" pertsonaiak halako arrakasta izateko? Nola daude egituratuak Max Velthuijs-en irudi-liburuak? Zein da beraien tonu nagusia? Zein beraien estetika eta etika? Sinpletasunaren atzean zer dago gordeta hain modu zuzenean ukitzeko hainbeste haur?



EPSTEIN, J., RADIGUET, C. (1982): *L'explorateur nu*. Editions universitaires.

PUERTA LEISSE, Gustavo. (2003). "El simple y complejo mundo de Dick Bruna". *CLIJ* 161, 44-50.

Jakingarri honetan bertan haur literaturako autore ezagun bat gomendatu dugun bezala —Max Velthuijs, alegia—, beste bat gomendatuko dugu orain: Dick Bruna. Biak, gainera, komunean gauza bera dute: haur txikientzat egin dutela obra guztia. Dena den, badago desberdintasunik: Max Velthuijs-i ospea "Igel" batek eman zion bezala, Dick Brunari "Untzitxo" batek eman zion. Dena den, Dick Brunaren meriturik handiena bere aitzindaritasunean datza. Zeren, 1955. urtean, ia inork ezer idazten eta ilustratzen ez zuen garaian, ausartu baitzen argitaratzera "Untzitxoaren" unibertsoa —unibertso txikia bezain bitxia benetan, jada klasiko bihurtu dena mundu guztian—. Eta aitzindaria dela diogu funtsezko arrazoi batengatik, hots, bere estiloarengatik. Bera izan baitzen lehenengoetakoa formatu txikiko liburuak oso haur txikientzat argitaratzen: orri gogorrak, kolore biziak, eta marrazki sinpleak, oso sinpleak, zenbaitentzat nahikoa leloak gertatu zirenak. Baina, haur txikiek arrazoia eman zioten, eta, orduz geroztik esan daiteke, sortzaileentzat erreferente garrantzitsua izan dela. Izan ere, Dick Brunaren unibertso sinplean, eta sinpletasun handiko liburuen atzean ezagupen kognitibo handia baitago, hala nola diziplina handiko lanketa izugarria, ez gehiago eta ez gutxiago.

Nerea Alzola eta Pello Añorga  
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta  
Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasleak



# Esan dute



Someter la educación a las leyes del mercado no sólo significa ab initio aceptar que sea desigual, sino que además supone el abandono progresivo de los valores a los que no se debe renunciar. Es en esa disyuntiva de mantener, o no, la educación al margen del vaivén mercantil donde se decide por ahora hacia dónde vamos”.

Luis Gomez Llorente  
*Cuadernos de Pedagogía* 326, 19



Educar ciudadanos y ciudadanas implica, no sólo prestar mucha atención a los contenidos que se incluyen y por qué, con qué argumentos, sino también a los modos cómo se trabaja y convive en los centros escolares, pues es de esta manera como la virtudes cívicas se parenen y ponen a prueba”.

Jurjo Torres (2003)  
*Cuadernos de Pedagogía* 326, 24



[...] desde muy pequeños el niño posee una competencia moral intuitiva que muchas veces se ha infravalorado [...] Durante la infancia e independientemente del contexto cultural y familiar, los niños y niñas comprenden que las conductas que hacen daño a otras personas son en sí mismo malas”.

Conchi Medrano (2003)  
*Infancia* 81, 5



En el niño hay que despertar preguntas, no atiborrarle de respuestas”.

Josefina Aldecoa (2003)  
*Cuadernos de Pedagogía* 326, 41



Hay que abandonar la idea de que hay países ricos sin hambre”.

Florence Egal (2003)  
*El Ciervo* 632, 20



En el mundo de la lectura, la palabra obligar debería estar prohibida [...] En la vida valoro el riesgo, el equivocarse, el tomar decisiones, el amor y la ternura, y todo ello se refleja en mi literatura”.

Mariasun Landa (2003)  
*Cuadernos de Pedagogía* 329



Nik bi fantasia modu bereizten ditut. Batetik, errealitatearekin ezer ikusteko ez duena; eta bestetik, errealitatearekin erabat uztartzen dena. Nik bigarrena atsegin dut; errealitatea hobe ulertzeko balio duelako. Harry Potter errespetatzen dut, baina ez da nire gustukoa. Beste fantasia mota bat atsegin dut; gure kezkak eta abarrekoak azaltzen dituena. Animalien erabilera, esaterako. Animaliei buruz hitz egiten dugu, baina gure buruaz ari gara”.

Garro. L. (2003-11-18):  
“Mariasun Landa”, *Oarsoaldeko hitza* 100, 2



Los glosadores piensan que en la improvisación, en la *performance*, quizás más que los contenidos importan los sonidos... La capacidad de despertar la recepción del auditorio sin disponer de grandes contenidos es una fuerza que se debe a la voz”.

Agirre. J. (2003-11-6): “Ahozko inprobisazioa munduan”, *GARA*, 61



La vida es algo muy extraño. Uno vive muchos años en diferentes niveles. Se aprenden muchas cosas, y tal vez la más importante de todas es que uno no es lo más importante. Los jóvenes de hoy pueden hacer tantas cosas. La vida les ofrece múltiples alternativas: informarse, conocer, viajar. Y, sin embargo, no están conformes. Tienen mucho y les molesta tener que entregar parte de sí mismos a los demás. He aprendido que parte de la vida la debe uno entregar a otra persona. Así tiene que ser. Sí, he encontrado mi alma. Soy muy, muy viejo”.

Elena, I. (2003): “Un niño de 80 años. Entrevista a Max Velthuijs”, *CLIJ* 163, 28-31



Si un texto literario es de calidad, puede tener varias lecturas. Es como si le vas quitando diferentes capas igual que si se tratara de una cebolla o de una alcachofa. Si se lee con 12 ó 14 años, se puede quedar con la anécdota, pero hay otras lecturas y el adulto se identifica con el personaje y se ríe...”

(2003): “Entrevista con Mariasun Landa”, *Zazpika* 254, 10-15

# Haurra familiarean eta eskolaren artean

Rafael Cristóbal

Mondragon Unibertsitatea.  
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

“JAKINGARRIAK” ALDIZKARIAK BIGARREN ZENBAKIA ESKAINI DIO 2002KO AZAROAREN 22AN ETA 23AN EGIN GENUEN NAZIOARTEKO SINPOSIDARI, ETA HEMEN KARIN GROSSMANN IRAKASLEAREN BI HITZALDIAK ETA MARINUS VAN IJZENDOORN IRAKASLEAK EMAN ZUEN HIRUGARRENA AURKEZTUKO DITUGU.



**S**inposioaren gai nagusia «Haurra familiarean eta eskolaren artean» izan zen. Lehen zenbakian Atxikimenduaren Teoriaren kontzeptu-oinarriak jaso genituen, batez ere. Van Ijzendoorn irakasleak bere hitzaldietan datu enpirikoak eman zituen, haurrak bere lehen eta bigarren zaintzaileen aldetik hartzen dituen lehenengo zainketen kalita-

tea zein garrantzitsua den erakusteko. Haur Eskolan zainketen kalitate hori gauzatzeko baldintzei buruz erreferentzia batzuk ere baziren.

Bigarren zenbaki honetan Regenburger-eko Unibertsitateko Karin Grossmann irakasleak, etxeko lehenengo zaintzaileen eskueetatik Haur Eskolako bigarren zaintzaile eta hezitzaileen eskuetara haurrak egiten duen bidearen jarraipena egiten du, haurrak hezitzaile horiekiko dituen premiei buruz hausnarketa eginez. Talentu bereziaz esaten digu, egia izanik ere haurrak zainketa maitagarri eta sentibera behar duela, arreta berezia jarri behar dugula horiek emango dizkioten

pertsonengan. Gaur egungo amak eginkizun gehiegi ditu eta bere «habian» laguntza behar du. Haur Eskolan haurraren hezitzaileek beren historia dute atzean, eta horien jarrerak bere garaian hartutako hezkuntza eta prestakuntzaren arabera izaten dira. Gainera, ez dira haurraren berezko amak. Beraz, arreta handia jarri behar zaio bigarren zaintzaile horien mundu mentalari eta nortasunari nahiz prestakuntza teorikoari: horiek guztiek baldintzatuko dute beren esku familiek utzitako haurraren kiko jarrera.

Etiket Haur Eskolara haurrak egin behar duen trantsizioak behar hainbat denbora eskatzen

# en rtean

du haurrak atxikimendu-loturak ezar ditzan atxikimendu-figura berriarekin eta, horrela, ziur senti dadin esparru berri horretan, taldeko zainketak berez izaten baitu nolabaiteko estresa. Haurra seguru sentitzen bada, bilaketa edo ikerketa, jolasa, beste haurrekiko harremanak, eta garapen-etapa horri dagozkion beste ezagutza- eta portaera-gaitasun batzuk garatzeari ekingo dio.

Bere hitzaldietan, Karin Grossmann irakasleak hezitzaile eta gurasoentzat era xume eta ulergarrian azaltzen du haurrak etapa horretan duen mundu kognitibo eta emozionala, Portaera eta Ezagutzaren Garapenaren Psikologiak aztertua. Horrek, haurraren beraren ikuspegitik, haurrak dituen zainketa-premiak argi eta zehatz formulatzera eramaten du.

Bere hirugarren hitzaldian, van Ijzendoorn irakasleak Haur Eskolari buruzko gai garrantzitsuak aztertzen ditu: industrialki aurreratutako gizarteetan aitaren eginkizuna eta familiako zereginen banaketa, haur-eskolatze goiztiarrak eskatzen dituen hezkuntza-baliabideak, eskolatze goiztiar honek haurraren gara-



Arizmendi ikastola. Umezaintza. Arrasate.

pen ebolutiboan duen eraginari buruzko azterketak eta, azkenik, haurtzaindegien kalitateari buruzko gaiak. Azken gai honetan, van Ijzendoorn irakasleak zainketaren kalitatea neurketa-sistema fidagarrien bidez etengabe ebaluatzeak duen garrantzi erabakigarria adierazten du. Hori gida bat da zentro bakoitza etengabe hobetzeko, eta haurtzaindegien kalitateari buruzko azterketa konparatiboak egiteko oinarri bat ere bai, hezkuntza-baliabideen kudeaketarako gobernu-politikek kontuan hartu beharrekoa.

Jakingarriak-en zenbaki honetan Josune Etxabe irakasleak egindako lan baliotsu bat ere sartu dugu; Mondragon Unibertsitateko ikasketa-amaierako proiektuan oinarrituriko lana da, eta bere lan profesionala haur-atenziorako sare publikoan egiten du. Lan honetan, egileak, Garapen Psikologiaren eta Atxikimendu Teoriaren oinarri teorikoetatik abiatuz, hezitzailearen porta-

eraren eta haurren gelako jokabidearen arteko harremanak aztertzen ditu, eta bukatzeko, eskola-munduan pertsonen arteko harremanak egoki eraikitzeko iradokizunak egiten ditu.

Uste dugu Jakingarriak aldizkariak 2002ko azaroan egindako Sinposioari eskaini dizkion zenbaki monografiko hauekin, irakurleak bidea erraztuta aurkituko duela 0-3 urte arteko haurraren mundu liluragarrian, familiak eta Haur Eskolak osatzen duten ingurune horretan sartzeko. Mondragon Unibertsitateak haurraren zientzian ospetsu diren bi adituren eskutik egin nahi izan du bide hori: Marinus van Ijzendoorn irakaslea, Leydeneko Unibertsitatekoa, eta Karin Grossmann, Regensburgeko Unibertsitatekoa. Uste dugu bi monografia horietan aurkeztutako testuak balio handiko gidak izan litezkeela haurraren zainketa- eta garapen-premietarako Haur Eskola egokia eratzeko.

# Atxikimendua eta zaintzea: elkarre

**Karin Grossmann**

Regensburg-eko Unibertsitatea. Psikologia Departamentua



ATXIKIMENDUAREN MUIN EDO FUNTSAZ HITZ EGITEN HASTEA GUSTATUKO LITZAIDAKE. BABES-  
TUKO ZAITUEN NORBAIT AURKITZEA, BERE BESO-  
ETAN LASAITU AHAL IZATEKO, BERE BESOETAN  
BELDURRA GALTZEKO, PERTSONA HORREK BABES-  
TU EGINGO ZAITUELAKO: HORIXE DA ATXIKIMEN-  
DUAREN MUINA. ETA HORREXEGATIK DA HAIN  
GARRANTZITSUA HAURENTZAT.

**Z**uetako norbait jende zaharra zaintzen ari bada, premia hau gero-ago bizitzan berriro sortzen dela konturatu-ko da. Pentsa ezazue orain hiru-urogeita hamar edo laurogei urte dituztenengan edo gaixo daudenengan. Pertsona hauek berriro sentitzen dute indartsuagoa eta trebeagoa den norbaiten babes ditzen beharra.

Nire hitzaldian haur txikiez hitz egingo dizuet, hiru urtera iristen ez diren haurrez. Baina burura etortzen bazaizue gaixo eta ondo ez dagoen norbait, bere burua zaintzeko gai ez den norbait, emaiozue buelta irudi horri, zeren eta norbait bat-batean ahul, izaturik eta trebetasunik gabe sentitzen bada, orduan figura babesleren bat beharko baitu horrek.

Honela bada, bizitza osoan zehar geurekin izaten dugun errealitatea da atxikimendua. Zuei ere, pertsona indartsu, gazte eta trebeak izan arren, oso nekatuta zaudetenean, zerbait txarra gertatu zaizuenean, zuen ama larri egonik lur jota zaudetenean, orduan zuei ere atxikimendu-sistema suspertzen zaizue berriro eta norbait ondoan egotea nahi duzue eta zuen kez-

# Haurren haurra taldean ekin aurrera

ka horiei garrantzia kentzea, bere besoetan hartu eta esatea: *«Ikusiko duzu, ongi bukatuko da dena, ni zutaz arduratuko naiz eta zaindu egingo zaitut»*. Beraz, hau da atxikimenduari eta zainketari dagokien betekizuna.

Ondoren, atxikimenduaren pertsonaia nagusietako bati buruz hitz egingo dizuet, amari buruz. Amaren lekuan jartzen

bagara, bere eginkizuna egundokoa dela esan genezake. Izugarritzko erantzukizuna du haurrari buruz. Ez dago amarik munduan bere eginkizun hori berak bakarrik bete dezakeenik, eta horretan saiatzen bada jasan dezakeena baino estres handiagoa izango du, eta beraz kultura guztietan «habian» lagunduko dien norbait behar dute amek, eta hori etologiatik, animalien

mundutik ateratako esapidea da. Beraiek izango dira lehenengo figurak (edo primarioak), baina hainbat egoeratan lagunduko dieten pertsonak behar dituzte. Adibidez, beste norbaitek haurra zain diezaion behar du, berak bitartean lo egin ahal izateko. Amak haurra maite badu, konprometituta sentituko da, haurrari gerta dakioken guztia erantzule sentituko da. Ez



Arizmendi ikastola. San Viator Txiki. Arrasate.

dago amarik bere haurrari egun txar bat opa dionik. Beraz, berak ezin badizkio haurrari zainketa batzuk eman, beste pertsona batek maitasunez zaindu dezan arduratuko da. Eta nola lor dezake beste norbaitek zaintzea bere haurra? Oinarri zurrak, izututa dagoenean haurrak behar duen pertsona da, honek babes dezan. Eta haurra ziur sentitzen denean, berriro hasiko da mundua nolakoa den ikertzen eta aurkitzen. Beraz, kontua da nola erraztu haurrari bigarren atxikimendu-figura hau onartzea.


Baina, zer behar dute haurrek beren zaintzaileengandik?

Haurraren gurasoak ez diren zaintzaileek sarritan ez dute jakiten oso ziur haur horrek zer behar duen. Horregatik, zaintzaile profesionalak prestakuntza behar dute argi eta garbi jakin dezaten zer behar duten haurtxoek, elikagaiez eta pioxihal garbiez gain, hau da, ohiko zainketez gain.

Imajina ezazue orain beste egoera hau: batek nota txarrak izan ditu, ikaskideek berak baino hobeak izan dituzte, edota kopiatzen harrapatu dute. Orduan, zuzendariagana bidaltzen dute ohartxo batekin: «*Ikasle hau kopiatzen harrapatu dugu*». Ziur as-

ko, ez zenuke berorren lekuan egon nahiko. Haur batzuk nola tratatzen dituzten ikusita —Marinusek film bat erakutsi digu, non zaintzaileak biberioa haurraren ahoan ipini duen, eta haurra edoski nahian ari zen bitartean zaintzailea beste aldera begira zegoen—, zuek imajinatu nola sentituko zen haur hori biberioa ahoan sartuta. Saia zaitezte bere lekuan jartzen: hartuko zaituen beso atseginik gabe, hitz egingo dizun ahots maitagarririk gabe. Lortu duzun bakarra zure sabela esnez betetzea da, besterik ez. Horixe da norbera haurraren lekuan jartzea edo bere barruan sartzea.

### 1. irudia: Haurraren Buru Osasunerako Bideak (egokitua: NICHD Child Care Research Network)





Grafiko hau, eta kontuan izan ezkerretik eskuinera irakurri behar dela, Garapenaren Psikologiaren ikuspegi orokorra da. Ohar zaitezte faktore asko dau dela zaintzaileak haurrarekin duen portaeran eragiten dutenak, baita zaintzaile hau ama deanean ere. Bizitza osoan entzun baduzu beti haurrak ez direla lainezaz eduki behar, haurrei ez zaiela entzun behar baizik eta begiratu bakarrik, edota Alemanian esaten duten bezala: «hemen ez dugu haur negatirik behar, ez dugu haur zalapartasurik nahi, haurrek formalak izan behar dute». Haurtzaro osoan hori baino ez baduzu entzuten, hori dela zuzena sinesten duzu azkenean eta, beraz, ziur asko horixe bera transmitituko diezu zuk ondorengo belaunaldiei. Zuk haurtzaroan zeureganatutako uste eta sineskizunak, horiek direla egoiak uste duzu.

Eta, noski, haurrak ere badu atzean bere historia txikia: gurasoek nola jokatu duten berarekin, edota gaixo egon zen ala ez jaio orduko... Beraz, alde horretatik, elkarrekintzan dauden bi aldeek dute bakoitzak bere historia emozionala.

Bestalde, zerbait garrantzitsua eta kontuan izatekoa, familia bakoitzak dituela testuinguru batzuk ekonomiari eta hezkuntzari dagokionez. Badakigu zaintzaileek, lehen irakaskuntzako irakasleek, klase ertainekoak direla normalean. Neska edo mutiko bat garbitasun handirik gabeko eta hezkuntza-maila handirik gabeko etxe batetik datorrenean, alkandora edo atorra zikinarekin datorrenean etxetik eskolara, edo ahoan janari arrastoak dituela, eskuak garbitu gabe, eta abar,

ziur asko zaintzaileak esango dio: «*Zer nazka! Baina nor da txerrixo zikin hau?*». Beraz, gizarte-klaseak nolabaiteko aurreiritziak sor ditzake, haur garbi eta txukunaren eta zikin eta gaizki jantziaren artean bereizketak eginez. Zaintzailearen eta haurraren gizarte-testuinguruak zeregin garrantzitsua du beraien arteko harremanetan.

Testuinguru honen hirugarren alde: zaintzailearen ustez, zer ote da haurra hazi eta heztea? Alemanian, eta ziur asko Espainian baino areago, negarrez ari den haur bat besoetan hartzea mimatzea dela uste da, gehiegizko gorputz-ukipen edo kontaktu fisikoak bigundu egingo duela, haurrari gehiegi erantzuteak tirano bihurtzen duela. Haurraren zainketari buruzko eta etorkizunean herritar onaz izateko beharko duenari buruzko uste hauek guztiak sartzen dira hemen jokoan. Adibidez, zure irakasle-prestakuntzan irakasleak hitz egin eta informazioa eman behar duela irakatsi bazizuten zure prestakuntzaileek,

jakintsua izan eta haurren gaitetik egon behar duela, ideia horiek guztiek eragina izango dute haurraren zainketaren nolakotasunaz duzun ideian. Eta hala ere, zaintzaileak lurtean eserita egon behar du, burua haurraren buruaren maila berean duela, entzun egin behar du eta ez hitz egin haurraren gaitetik, begira egon behar du eta erantzun eta ez bere informazio guztia haurraren sartu, haurrak bidaltzen dituen seinaleen zain egon behar du esaten ari dena ulertzeko. Hau guztia ez da irakasten irakasle-eskoletan. Eta hauxe da axola zaidana 0-3 urte arteko mailetan irakasleek behar dutenaz hitz egiten dudanean. Zaintzaile hitza aukeratu dut, zeren eta, gure laguna zaindu nahi badugu, orduan berak zer nahi duen jakin nahi baitugu, bera ulertu, adi egon eta atseginak izan nahi baitugu berarekin. Hori da laguna maitatzea. Eta nik zaintzaile ideala haurrarentzat izeba edo lagun bat bezala imajinatzen dut, eta ez dakien guztia irakastera beste mundu batetik datorren maisu-



Arizmendi Ikastola. Jose Arana. Eskoriatza.

maistra bezala. Hori guztia da zaintzailearen portaeran sartzen dena, zaintzaileak jokatzeko duen moduan, alegia. Portaera horren arabera, garatzen ari den haurraren nortasunaren bila joan behar du, baita pentsamenduaren alderdi formaletan ere, eta haur horren historian amaren ulertzeko gaitasuna sartzen da, amaren egoera animikoa — ama estresatuta baldin badago, haurra haserrekorra izango da—, edo erditzea zaila izan bazen, haur hiperaktiboa izan daiteke. Beraz, zeinahi dela ere haurraren adina, haurrak bere nortasuna du. Horregatik honetan jarri behar dugu gure arreta: zer den haurra une honetan esperimentatzen ari dena, zein den bere esperientzia hemen eta orain — ez zaintzaileak zer egin dezakeen, baizik eta zer egiten ari den une honetan, instant honetan— eta horrek nola eragiten dion haurrari une honetantxe. Beraz,

gure azterketa guztiak haurrari une honetantxe gertatzen ari zaionaz egin behar dira. Zeren eta esperientzia horiek guztiek —atseginak eta gozoak direnek edota, aitzitik, errefusatu senti-tu eta aurrean daukan pertsonarengana ezin dela iritsi eta honek ez diola erantzuten sentitzeak— eragina dute haurraren nortasunean.

### Haurraren mundu mentala

- Sentimenduak dira nagusi; arrazoitzerik edo denboraren kontzepturik ez du.
- Ikusi, entzun, usaindu eta dastatzen duena aurrez ezagutzeak, elkartasun eta hurbiltasunak ziurtasun-sentimendua ematen diote.
- Atxikimendu-figurengandik eta esperientzia ezagunetatik

banatzeak min egiten du; estresa eta lasaitasunik eza.

- Gauzak gertatzen dira, baina haurrek ez dakite zergatik, eurek ez badituzte gertarazten.

Gure ikerketetan aitaren, amaren eta haurraren arteko lotura izan dugu kontuan eta jaiotzen denetik 22 urte bete arteko jarraipena egin dugu: horrela jakin dugu haurrari zer gertatzen zaion, egunez egun, 24 orduz, baita lo dagoenean ere, hau estres eta negarrez bete egon baitaiteke; beraz, loa urduria denean, ez du haurra lasaitzen, baizik eta norbait behar du ondoan babesteko, horrek eragina izan baitezake haurraren nortasunean. Haurrari eman zaion tratamenduak eragina izango du etorkizunean bere atxikimendu-figurak ikusteko moduan: hau da, berari axola izatea pertsona horiek be-



Arizmendi ikastola. Umezaintza. Arrasate.

rarekin pozik dauden edo ez, bere planak aldatzea pertsona horiek pozik dauden edo ez ikusita, bere kabuz gauzak egiteaz poztu egiten direla ikustea... Zer ekarpen egin behar du haurrak pertsona horiekiko harremanetan?

Mementoan haurra esperimendatzeko ari denak garrantzia du, adibidez, haurra oso asaldatua dagoenean. Zaintzaile maitagarriak esango dio: «*Tira, tira, ez da horrenbestera, nik lagunduko dizut*». Horrela, bere emozio bizi horiek modulatu egin daitezkeela ikasiko du haurrak, bideratu egin daitezkeela, eta ez daukala ezinbestean erasora pasa beharrik haserre dagoenean, eta triste dagoenean ere ez daukala zertan depresio bihurtu. Emozioak hor daudela ikas dezake, baina ez daukate zertan egon haurraren kontroletik kanpo. Hauxe da zaintzailearen zereginik nagusienetakoa. Harremanetan, haurrak zera ikasiko du: ea merezi ote duen ahalegintzea adiskidetasun horretan, harreman horretan, ea merezi ote duen ahalegintzea irakurtzen edo margotzen, aurpegi irribarretsu bat baldin badago marrazki hori erakutsi ahal izateko. Bere hitzak erabiliz, «nire energia zertan jartzea merezi du?». Eta, noski, «nik besteak ulertzeko modua besteek ni neu ulertzen nauten modutik sortzen da». Zuek niri euskaraz hitz egiten badidazue, ez dizuet ulertuko, eta nik alemanez hitz egiten badizuet, zuek askok ez didazue ulertuko. Beraz, nola iritsi noizbait adiskide izatera, ezin badiogu elkarri hitzik

egin? Honela bada, zuk haurrari ulertzea eta haurrak zuri ulertzea da konprenitzea. Eta, noski, aurterago has gaitezke planteatzen zergatik gertatzen diren gauzak. Eta hau guztia da haurraren buru-osasuna esatean laburtzen duguna.

Berriro azpimarratu nahi nuke haurtxoa orainaldian bizi dela. Jakina, oraina iraganean gertatu zenaren eta geroan gertatuko denaren gainean eraikia dago, baina sentimenduak oraina dira.

Baina, zer da haurra? Zer gertatzen da haurraren buruan? Hiru urtera iristen ez den haur baten esperientzia baldin baduzue, jakingo duzue esperimendatzeko duen guztia sentitua dela. Aurpegi irribarretsu batekin topo egiten badu, haurra ongi etorri sentituko da. Aurpegi ilun batekin aurkitzen bada, haurrak atzera egingo du. Estropezu egin eta aulkiarekin min hartzen badu, aulkia gaiztoa da eta aulkiak eraso egin dio. Beraz, esna dagoen orduetan ger-

tatzen den guztia sentitu egiten du sabelaren bidez edo bere buruaren alderdi emozionalaren bidez, zergatik jakin gabe, eta horrek bizitza oso estresagarri bihurtzen du haurtxoentzat.

Lagun bat etxera asaldatua edo erasokor etortzen bazaizue eta bere nagusiarekin eztabaida izan duela baldin badakizue eta nagusi hori ez dela oso pertsona atsegina, «*ulertzen dut, egun gogorra izan da zuretzat*» esanez kontsola dezakezue laguna, eta beraz ez zaituzte minduko bere erasoak, bai baitakizue erasoak ez dagoela zuen aurka zuzendua, baik eta bere nagusiaren aurka. Baina nola jakin dezake haurtxo batek bere zaintzaileak agian gau txarra izan duela, tripako minez egon dela, edo senarrarekin eztabaida izan duela eta horregatik iritsi dela Haurtzaindegira haserre eta suminduta? Nola jakin dezake haurtxoak zaintzailea haserre egoteak ez duela esan nahi bera neskato edo mutiko gaiztoa denik? Berak sentitzen duena da giro txarra dagoela eta ez dutela



Arizmendiko ikastola. Jose Arana. Eskoriatza.

begi onez ikusten. Beraz, norbait haserre baldin badago, horren arrazoa haurrarentzat ezin da bera baino izan. Sentitzen du bera ari dela haserre dagoen hori amorrarazten, dena berarengatik gertatzen dela sentitzen du,



mundua bere inguruan ari dela biraka, emozio guztiak bereak direla, egin edo hitz egiten den guztia berari zuzendua dagoela, bera dela munduaren zilborra, eta horregatik norbait haserre baldin badago edo ez badio jaramonik egiten, bera «gaiztoa» delako dela.

Beste gauza garrantzitsu bat, ezin baitugu beti gogoan izan, honako hau da. Ama batek esaten badu: «*bazkalorduan etorriko naiz zure bila*» eta goizeko 9ak badira, zer adierazten dio, oraindik denboraren noziorik ez daukan haurrari, bere bila 4 ordu barru etorriko dela esateak? «Ordubate barru» esanda ere, haurrak ez daki zenbat den ordubate. Baina «brehala etorriko naiz zure bila» esanez gero, «brehala» zer den 12 eta 20 hilabete artean ikasten dute haurrek. Adin hauetan haur guztiak ikasten dute zer den «aurretik» eta «ondoren»; lotara joan aurretik edo bazkaldu «aurretik» aurpegia garbitu behar dugu; lo egin «ondoren» amatxo zure bila etorriko da; beste jostailu bat hartu aurretik, lehengoak gorde behar ditugu. «Aurretik», «ondoren», «brehala» denbora-kontzeptuak bi urte edo bi urte eta erdi inguruan lortzen dira. Baina ama atetik badoa kiola ikusten duen haurrarentzat «lau ordu barru» esateak, zer esan nahi ote du? Agian ez dela sekula itzuliko. Amak bazkaldu aurretik itzuliko dela esateak ez du beraien-

ezer esan nahi. Honela bada, nola izan dezake haurrak ama etorriko zaion konfiantza? Ba, egunero etortzen zaiola ikusita, eta zeinahi arrazoiengatik ezin bazaio ordu berean etorri, gutxienez berriro ikusi behar du atetik era berean sartzen. Beraz, eguna joan eta eguna etorri, ama eguerdian etortzen bada, honek nola baiteko konfiantza sortzen du haurrarengan, nahiz eta haurrak ez jakin ez noiz, ez nondik datozen ama, ezta ere zer egin duen kanpoan egon den bitartean, baina gutxienez ziur dago itzuliko dela.

Prozesu honetan laguntzeko era polita —eta hau haur txikienezko eguneko zentro batzuetan ikusi dut—paretan argazki-pila bat uztea da: aitonen, amonen, aitaren, amaren... argazkiak. Miren triste baldin badago ez dakielako ama itzuliko zaion edo ez, zaintzaileak amaren argazkiraino joan eta esan diezaioteko haurrari: «*hemen dago amatxo, berak eman dit argazkia eta laster etorriko zaizula esan dit*». Horrela, egunkarietako argazkiak edo haur-argazki politak ipini ordez, ipin itzazue argazki pertsonalak, ama Mireni jaten ematen ari dela edo aita-amak Mirenekin jolasean ari direla erakusten duten argazkiak, eta gutxienez argazkien bidez bertan dauden ustea izango du. Edota ama besarkatzen edota umeari arreta jartzen ari zaioneko argazki bat baldin baduzue eta egunean zehar paretan jartzen badituzue, haurrak kontsolamendua aurki dezake argazkiri begira.

Hau era polita da denbora egituratzeko. «Orain badoa, gero itzuliko da» esan diezaioteko, baina bitartean haurrak gorabe-

EPSTEIN, J., ZAÛ, (1985): *Le Enjeu: Adultes, Enfants: vivre ensemble en collectivité*. Paris: Armand Colin - Bourrelier.



Arizmendi ikastola. Umezaintza. Arrasate.

hera asko izan ditzake bere adone edo animoan ez baitaki ama noiz itzuliko zaion, eta argazkiak lagundu egin diezaioke bi urteko haurri ama hor dagoela pentsatzen eta zaintzailearen laguntzarekin ziur sentituko da, jakinik ama etorriko zaiola eta etxera eramango duela.

Atxikimenduaren beste alderdi batzuk ere ongi sentiaraz zaitzaketen gauzak dira. Heldu bezala pentsatzen dugunez, gai gara ongi sentiaraz gaitzaketen gauza askotan pentsatzeko. Baina gogoratu ahots batek ere ongi sentiaraz gaitzakeela; adibidez, atzerrian baldin bagaude, ni orain bezala, eta bat-batean norbait alemanez hitz egiten entzuten badut, esango dut neure artean: «Ene! Badut hemen norekin

hitz egin». Imajinatu izorratuta zaudetela, zuen amaren ahotsa entzuten duzue, oso harreman ona duzue berarekin eta esaten dizue: «*Zer moduz zaude?*». Eta lasaitu egin zara amaren ahotsa entzute hutsarekin. Maite duzun ahots bat entzuteak lasaitu eta baretu egiten zaitu, ziurrago sentiarazten zaitu.

Gauza ezagunak ikustea atsegingarri gertatzen da; gogoratu etxez aldatzen zaretenean, aurretik liburu, disko edo argazki kutunak hartzen dituzuela eta ingurune berria zeuentzat ezagun bihurtu nahi izaten duzuela. Eskolara itzuliz, uste dut haurtzaindegiak ezagunagoa izan beharko lukeela haurrentzat, eta bere etxetik gauza ezagunak (bere aulkia, xukadera edo eskuoihala,

lerde-zapia, kikara...) eramaten utzi behar litzatekeela, horrela lasaiago eta gusturago sentituko baita. Bestela esanda, Marinus van IJzendoornek Egoera Arrotzaren Testarekin erakutsi duen bezala, gauza berriak, pertsona berriek, hots berriek, usain berriek haurtzaindegia leku arrotz bihur dezakete.

Imajinatu orain Ginea Berrian Papuako goialdeetara eramaten zaituztedala, eta han badi-rela gizakiak ehizatzen dituztenak eta oihanaren erdian uzten zaituztedala, esanez: «*Agur, hor konpon, itzuliko naiz*». Egoera bertsuan aurkitzen da haurtxo bat eguneko zentroan, jakin gabe hor ez dagoela gizaki-ehiztaririk eta norbait itzuliko dela bere bila. Behar dena ez jakitea, denbo-

raren noziorik ez izatea, beldur-garria da.

Zaporeetara eta hurbiltasunaren kontura itzuliz. Gaixo baldin bazaudete, zuen gustuko janaria nahiko duzue, zapore ona du eta usain gozoa ere bai. Gabonetan etxeratzen bazarete, etxeko usain bereziak hartu nahi dituzue. Etxera joateak zure logelara joatea esan nahi du, zure amak gustatzen zaizuna prestatzea, eta etxean begiak itxita ere ibili ahal izatea, dena zehatz-mehatz eza-gutzen baituztu. Gauza horiek guztiak ziurtasun-elementuak dira; horregatik, hauxe da esan nahi dizuedana: haur bat beste pertsona bati uzten badiozue berak zaindu dezan, saiatu famili giroan senti dadin. Etxekotasun-elementu hauek guztiak ziurtasuna ematen dute.

Zera entzun dugu, haur bat bere aitari edo amari lotua bal-

din badago (eta atxikimendu-figurak babesleku ziurrak badira), haurrak, izututa sentitzean, babesleku ziur horietara jotzen duela, ongi sentitzen dela eta orduan berriro «kanpora» irteteko gai sentitzen dela bilatu eta iker-tzera. Baina zure babesleku eta oinarri ziurra den familia desagertu bada, nora zoaz, orduan? Izututa zaudenean, nora joango zara ez badaukazu lasai eta babestuta sentitzeko lekurik? Eta hau kontzeptu garrantzitsua da atxikimenduan. Atxikimendua lasaitasunaren arabera neur daiteke, estresaren hormona den kortisolaren jaitzieraren arabera.

Norbait estresatuta dagoenean, kortisolaren maila igo egiten da, eta pertsona hori lasaitzen bada, kortisolaren maila jaitsi egiten da, bihotzaren erritmoa ere bai, larruazalaren tenperatura ere jaitsi egiten da, eta gorputzez lasaitu egiten da. Beraz,

atxikimenduaren adierazle ona da pertsona baten aurrean haurra lasaitzea. Hortaz, ziur sentiarazten zintuen eta une batean estresa kentzen zizun pertsona batengandik bat-batean banatzen zaituena errefusatu izatea da. Igerian ez badakizu eta norbaitek itsasora botatzen bazaitu, errefusatuta sentitzen zara, eta benetan horrela da, zuk igerian zenekien edo ez jakin gabe ere, pertsona horrek uretara bota baitzaitu.

Ba, haurra gurasoengandik banatzea, gure haurra lehenengo aldiz haurtzaindegira eraman eta han uztea, itsaso hotzera botatzea bezala da. Horrela sentitzen da bera, hark ez baitaki zaintzailea maitagarria den edo ez, han jostailurik baden edo ez, ez daki zer gertatuko zaion. Igerian jakin gabe, itsaso handi eta hotzean igerian egin beharrean sentitzen da. Hain zakar banatzen denean haurra gurasoengandik, estres-



Arizmendi ikastola. Jose Arana. Eskoriatza.

egoeran sartzen da, babeslekua-  
ren aukera eskaini gabe, gainera.

Gauza hauek guztiak gertatzen zaizkie haurrei eta ez dakite zergatik. Zergatik ulertu behar du haurrak edo nola uler dezake amak lan egin behar duela? Zer jakin dezake familiako diru-sarrerere buruz? Haurrari ez zaio axola amaren aurrerapen pertsonala, haurrari bost axola zaio nondik etortzen den dirua. Ez dauka diruaren kontzepturik. Berak zaindu dezaten nahi du. Beraz, ez du ulertzen gurasoak zergatik urruntzen zaizkion. Haurrarentzat gurasoak etxean egotea da garrantzitsua, hor egotea oinarri ziur gisa.

Jakina, haurrak gurasoekin ematen duen denboran, dei egin diezaieke, heldu egin diezaieke, «utz nazazue bakarrik» esan diezaieke, eta gurasoekiko harreman horretan gauzak gertaraz ditzake haurrak, eta beste ziurtasun-puntu bat da hori. Haurra bakarrik uzten badute eta dei egiten badu eta ama hurbildu egiten bazaio, horrek oso ongi sentiarazten du bera. Baina aurrerantzean haurra zainduko duen beste pertsonarengana transferituko da hori guztia.

Orain arte, haurraren ikuspegi izan dut kontuan, baina, noski, haurrak daukan amarekin bizi behar du, ama hori eta aita hori bakarrik ditu eta; baina espero dezagun izebaren bat edo beste pertsonaren bat ere egotea amari «habian» laguntzeko. Sarri nahikoa estresatuta ibiltzen dira amak. Batzuetan senarrak edo bizilagunak ere etxea garbi eta txukun nahi du, jatordu onak, haurra bezainbat zaindua izatea nahi du, are gehiago, batzuk je-

loskor ere jartzen dira haurrari eskaintzen zaion arretagatik. Hortaz, gizonari ere laguntza eman behar dio etxean; ezin dio esan: «zoaz pikutara!», gizona joan egiten bada, diru-sarrerak ere joan egiten baitira. Hortaz, etxeko gizona ere zaindu behar izaten du amak.

### Amaren premia «habian laguntzaileak» izateko, eta bere konpromiso maitekorra haurrarekiko

- Amaren eginkizun ugariak: senar edo bizilaguna zaintzea, beste haur batzuk, guraso zaharrak, baliabide gehigarri hornitzea sendia.
- Konpromiso maitekorra haurrarekiko: bat-bateko banatzea = errefusatzeta.
- Beste zaintzaileak ere amaren haurra balioetsia eta balioetsua sentitzeko moduan tratatu beharko luke.

Ama askok haur bat baino gehiago dute. Beraz, ez da haur bakarra bere arreta eskatzen diona, baizik eta bat baino gehiago eta adin desberdinetakoak. Bat eskolara joateko adinean dago eta etxeko lanekin lagundu behar dio, besteak lau urte ditu agian eta puzzle batekin laguntzeko eskatzen dio, eta beste batek urtebete du eta besoetan hartzeko eskatzen dio. Beraz, amak banatu egin behar du bere arreta.

Alemanian gaur egun arazo latza daukagu guraso zaharrek. Adibidez, nire ama bizi da eta 90 urte ditu. Lankide gazteago batzuek 80 eta 90 urte arteko gurasoak dituzte, eta guraso

zahar horietako askok zainketa handia behar dute orain. Beren etxeetan nahiz egoitza batean egon, arreta handia eskatzen diete seme-alabei. Honela diote: «*nik zaindu zintudan txikia zinenean, orain zuk zaindu behar nauzu ni*». Alemanian nire adineko jendeari «sandwich belaunaldia» esaten zaio, bere seme-alabak zaindu behar dituelako, baina baita zainketa asko behar duten guraso zaharrak ere. Gainera, aitaren diru-sarrerak ez badira oso handiak, sarrera osagarriak ekarri behar ditu amak. Hau ez da herrialde industrializatueta bakarrik gertatzen. Papuan, Guinea Berrian lanean jardun genuenean, nekazaritzako lan asko (patata-bilketa, etab.) emakumeek egin behar izaten zuten. Beraz, guraso zaharrak, haur txikiak edo senarra zaindu eta etxeko lanak egiteaz gain, ez zen batere arraroa emakumeak baliabide ekonomiko gehigarri batzuk ere ekarri behar izatea.

Ama batek mila beso behar ditu zeregin horiek guztiak egiteko. Horregatik behar du lagunduko dion norbait. Laguntzaile bat izeba izan daiteke, garbiketarak egiteko kontratatu duen norbait, edo auzokoren bat erosketa batzuk egiten dizkiona, edo medikuarengana joan behar duenean haurra zaintzen diona. Beraz, guretzat trebetasunaren seinale da laguntzaileak bilatzea, eta kontrakoa berriz honelakoak esatea: «*neuk bakarrik egingo dut hau dena*». Jakina, gauza ederra da amona behar bezain gertu bizitzea bera izateko laguntzaile hori, baina senar-emazte gazteak askotan ez dira aiton-amonengandik hurbil bizi. Horregatik, guretzat gaitasuna eta trebetasuna adierazten du laguntzaileak bilatzeak.

## Beste «oinarri ziur» baterako trantsizioa erraztea eta «bigarren atxikimendu-figura» bat onartzea

- Gurasoak lagunduta, haurrak jolaskidea onartuko du.
- Irakasleak arrakasta lortzen badu haurra kontsolatzen, bigarren atxikimendu-figura bihurtuko da.

Orain, zer da konpromiso maitekorra, inplikazio samurra?

Amak haurrenganako samurtasuna baldin badu, ez du nahiko gehiegi atsekabetzea, haurra ongi sentiarazteko moduko giroa sortu nahiko du.

Haurrarekin maitasunezko inplikazio hori duten amek etxetik eskolarako trantsizio hori ahalik eta leunena izatea nahiko dute, zaintzaile berriarengana ohituz joatea, haurrak pixkanaka gero eta konfiantza handiagoa izatea pertsona berri horrengan, eta pertsona berri horrek maitatu eta zaintzea berak orain arte egin

duen bezalaxe. Beraz, labur esanda, zaintzaile berriak amak tratatzen duen bezalakoxe garrantziarekin tratatu behar du haurra, hau da, haurra norbait baliotsua dela sentitzeko moduan. Eta nola jokatu haurra baliotsu sentitzeko?

Baina, lehenik, nola egin trantsizio hori haurrak erraz egin dezan?

Sarri entzun dugu, beste pertsona batzuek haurrarekin ematen dituzten orduak gorabehera, gurasoak direla garrantzitsuenak haurrarentzat. Aita-amak dira pertsonarik garrantzitsuenak haurraren bizitzan. Gurasoak gau osoan daude haurrarekin, ondoan daude gaixo dagoenean, urtebetetzak edo Gabonak ospatzerakoan ere bai, eta berarekin joaten dira oporretara —zaintzaileak ez dira haurrekin egoten oporretan—; beraz, zerbait berezia dagoenean edo haurra benetan gaizki edo gaixo dagoenean, gurasoek zaintzen dute. Aita-amak dira, orduan, haurraren berme edo oinarri ziurra.

Haurrak beste inor ezagutu baino lehen, gurasoak dira haurraren oinarri ziurra. Eta haurra ziur sentitzen denean, haur horrek onartu egiten du jolaserako laguna. Ziur sentitzen da eta bilatu edo ikertu egin dezake, babesten duen aita edo ama bat baldin badu atzean, abenturazale bihurtu eta beste pertsona arrotz horiek ezagutzen hasiko da. Hortaz, haurrarekin joan eta leku horretan egoten bazarete, jolaserako laguna ere aurkez diezaioke zue haurrari. Oraindik gurasoak dira oinarri ziurra, baina badira beste pertsona batzuk ere, nahi-



Arizmendi ikastola. Jose Arana. Eskoriatza.



koa atseginak, haurrarekin elkarrekin eta jolasean jardun daitezkeela erakutsi dutenak. Orduan, zuek, guraso gisa, esaten diozue irakasleari: «*mesedez, kontsolatu haurra; mesedez, eman jaten eta edaten; mesedez, lasaitu haurra, asaldatua dago eta*», eta amak esaten dio: «*ni hemen nago, baina, mesedez, ongi eta lasai senti dadila nire haurra*». Memento batean lasaitze-zeregin hori beste pertsona baten esku uzten da. Une batean irakaslea oso gaitua eta egokia bihurtzen da haurrari ziurtasun-sentimendu hori emateko, eta orduan gurasoak urrundu egin daitezke egunean zehar, irakaslea oinarri ziur bihurtu delako haurrarentzat.

Hau da, haurra lasai sentitzen da zaintzaile honekin, haurra kontsolatuta edo pozik sentitzen da; adibidez, haurrak baretu dezake bere haserrea besteak jo gabe, irakaslea hor dagoelako eta esaten diolako: «*Tira, negoziatu egingo dugu egoera hau, ez daukazu beste haur hori jo beharrik, nik lagunduko dizut borroka honetan negoziatzen*». Horrela, irakasleari dion maitasunagatik, haurrak ez du beste inor joko. Eta haur txikiekin haur-eskoletan lan egiten dutenek badakite jotzea, hozka egitea eta bultza egitea sarri ematen diren portaearak direla. Haur bat hozka egiten edo joka hasten bada, beste haurrek ere gauza bera egingo dute laster, eskura duten biderik errazena baita. Horregatik behar dute zera esango dien pertsona maitagarri bat: «*ez jo, badakit haserre zaudela, lasaitu eta konponduko dugu egoera, ez daukazu inor jo beharrik*».

Honela bada, zera esan nahi izan dut orain arte: amak tran-

tsizio leun eta atsegina egiten bada beste pertsona horri oinarri ziur bihurtzeko aukera emanez, orduan lasai joan daiteke bera egun osoan. Baina gogoan izan behar du beste pertsona hori bigarren mailako atxikimendu-figura bihurtu dela orain, aita bezala, edo amona bezala, edo agian izeba bat bezala. Orain amak kontu handia izan behar du jarraitutasunarekin, eta besteak beste horregatik azpimarratzen zuen Marinus van IJzendoornek hori zentroen kalitate onaren irizpideetako bat dela. Zeren eta maisu-maistra bihurtu bada oinarri ziurra eta bat-batean alde egiten bada eta beste zaintzaile bat etortzen bada, orduan haurrak galdu egin du bere oinarri ziurra. Beraz, «jarraitutasunak» esan nahi du haurrak konfiantza lortu duela irakasle batekin eta irakasle hori hor dagoela gaur, datorren astean, Gabon ostean: bere oinarri ziurra ez dela desagertzen. Hau da zentro batzuen arazoa: aldaketa asko dutela beren langileen artean. Haurrak onar dezake oinarri berri ziur bat, baina ez bost aldiz urtebetean edo astero. Hauxe da, bada, zaintzailez aldatzeak dakarren arazoa: bere oinarri ziurra den pertsona horrekin lasaitzeko aukera desagertu egiten da haurrarentzat, zaintzailea ere aldatzen den mementoan.

### Zer behar dute haurrek beren gurasoak ez diren zaintzaileengandik?

- Babesa, maitasuna, zainketa, eta begirunea beren banakotasunarekiko, eta garapenez zereginak.
- Horiek emateko helduak izan

behar du sentibera, lankidetzan trebea, haurrari erronka egokiak jarriko dizkiona, eta haurraren garapena ezagutzen duena.

Jarraian, alderdi garrantzitsu horiek guztiak jorratuko ditugu.

— **Babesa;** horrek oso gauza xumeak esan nahi ditu; adibidez, haur bat oso kontzentratuta ari da jolasean, eta beste batzuk bere inguruan korrika; bat-batean azken hauetako batek bultzada bat egiten dio lehenengoari eta nahastuta geratzen da, ezin jolasean jarraituz. Taldean asko egiten da lasterka eta gauza asko gertatzen da bat-batean, eta ohartuko zarete haurrak beti ari direla ondoren gerta daitekeenaz orientatzen: ea hau lasterka dabilen, ea horrek joko ote nauen, ea joango ote den, beste era batera esanda, beti ari da orientatzen zenbateraino den ziurra bere ingurunea. Hori dela-eta, baliteke haurra kontzentratuta ez egotea. Nola jarriko du arreta bere zereginen edo beste zerbaitetan, jo edo bultzaka egingo dioten beldurrez baldin badago beti? Hauek dira taldeko zainketen arazoetako batzuk.

— **Maitasuna.** Pertsona baten gana hurbildu eta pertsona hori kopetilun baldin badago, ez zara ongi etorri sentitzen. Eta haurra bezala pertsona batengana joan eta bat-batean besoak zabaldu eta irribarre egiten badizu, ongi etorri sentitzen zara. Honelako maitasuna behar dute haurrek ulertuta sentitzeko.

— **Zainketak.** Helduengandik etorritako zainketak benetan garrantzitsuak dira haurrarentzat.

— **Begirunea bere banakotasu-nari.** Haur batzuk aktiboagoak dira, beste batzuk geldoagoak, batzuk isilagoak, batzuek hobeto hitz egin dezakete, beste batzuek okerrago. Beraz, berezitasun horiek ezagutzen dituen irakasleak ezagutzen du nolakoak diren haurrak, badaki zein diren bakoitzaren indarguneak eta ahulgu-neak. Jakina, irakasle batek ezin ditu horrela 20 haur ezagutu, zailegia da hogeia izaera ezagutzea eta hogeia izaera desberdin horiei arreta jartzea. Beraz, gargarerako erronka bat da haurrek gauza desberdinak behar izatea hiru urtetik hiru urtera. Zer-nolako heldu edo nagusiek eman diezaiekete hori? Sentibera diren helduek, haurrek zer behar duten benetan ohartzen direnek, lankidetzan jarduten direnek, haurren artean eskua sartu gabe gauzak elkarrekin eginarazten dizkietenek. «Elkarrekin» hitz magikoa da bi urteko haurrentzat. «*Elkarrekin egingo dugu*» esanez konbentziturik duzue bi urteko haurra. «*Egizu hau edo beste hori*» esanez ez duzue lortuko zerbait eginaraztea. «Elkarrekin» da hitz magikoa.

— Erronkei egoki aurre egitea gurasoekin lan egiteko garatu dudan kontzeptu-

tua da, honela gurasoek beste era batera jokatzeko baitute eta beren haurrek gehiago aurreratzea lortzen dute.

— Eta, jakina, Marinus van IJzendoornek sarri azpimarratu duen gauzetako bat hau da: haur-eskoletako irakasleek prestatuntza ona behar dutela haurgarapenari dagokionez.

### Zer ote da «haurraren lekuan egotea edo bere barruan sartzea»?

- Erasoetatik babestuta ote nago, eta ongi zainduta gose, nekaturik edo gaixo nagoenean?
- Estresatuta nagoenean, kontsolatuko ote naute, lasai nadin?
- Aitortzen eta errespetatzen al dituzte nire sentimenduak, premiak, nahiak eta helburuak?
- Ulertzen ote dit niri eta lortuko ote dut nik ulertzeko moduko erantzunik?

■ Lagundu eta animatuko ote nau nik nahi eta behar dudanean?

■ Irakatsiko ote dizkit nik neure kabuz egin ditzakedan gauzak?

**Zaintzailearen sentiberatasuna haurraren ikuspegitik balioetsi behar da.**

Haurraren «barruan sartzea» zer den azaldu nahi dut azken puntuan. Haur bat nola zaintzen duzun ikusteko era on bat zera imajinatzea da: zu zarela ahula eta haurra zu baino indartsuagoa dela, edo zu adintsua zarela eta haurra pertsona heldua. Nahiko ote zenuke pertsona horrek zu tratatzea zuk bera tratatzen duzun bezala?

Honela, haurrak bilatzen duena eraso-mota guztietatik babestuta egotea da eta ez arestian aipatu ditudan eraso horietatik bakarrik (jostailu bat nahi duzu eta beste batek kendu dizu, edota aulkira igo nahi zenuen eta bat-batean gainera erori zaizu... haurrak bizi behar izaten dituen eraso horiek, alegia). Beste hauek esan nahi nuen: «Nor dago ondoan gaur goizean ondorezik edo nekaturik edo



EPSTEIN, J., RADIGUET, C. (1982). *L'explorateur nu*. Editions universitaires.

gaixo antzean baldin banago? Ba al dago norbait bere altzoan lo hartzeko edota eserita egoteko, ezer egin gabe?».

Haurrak jarrai dezake galdezka: «*Nor dago ondoan estresatuta nagoenean? Hor al dago ni lasaitu nazakeen pertsona? Ezagutzen al ditu nire sentimenduak eta premiak? Ba al daki zer nahi dudan eta kontuan hartzen al ditu?» Gose bainaiz, haur gisa ez dit ezertarako balio esateak: «*Bazkaria ordubete barru da*». Nik orain jan behar dut zerbait. Haur txikiak ezagutzen badituzue, badakizue batzuk oso azkar asaldatzen direla, eta jakin behar duzue honelako haurra goizeko hamaiketara nekata egoten dela, edo beste hau hamaika eta erdietan gose dela, edo beste hau oso urduri jartzen dela norbaitek eraso egiten diotenean... Hortaz, haur bakoitzaren banakotasuna hartu behar da kontuan, haur hori asaldatzen bada, lasaitzen duten gauzak aurkitzeko.*

Eta hori guztia, haurra hizkuntza garatzeko prozesuan murgilduta dagoen denboran, batez ere. Haurrak galdeztzen

dio bere buruari: «*Ulertzen didate horiek?»*. Badakigu bi urteko haurrek oso gaizki ahoskatzen dutela, eta haurra ezagutu beharra izaten dugu zehazki jakiteko zer esaten ari den. Beraz, banan-banako harreman estua behar dugu bi urteko haur baten hitzak ulertzeko. Eta berriro ere, haurra oso ondo ezagutu behar dugu, berak, beste haur batzuen aldean, dakizkien hitzekin erantzuten jakiteko: denboraren kontzeptua ulertu duen edo ez, janari-edarien izenak badakizkien edo ez, etab. Beraz, nire erantzunak haurrak dakienaren mailakoa izan behar du, ez esateagatik esan. Arrazoi hauek guztiek oso ondo azaltzen dute zergatik ez den telebista haurtzain ona: telebistak ez dio haurrari hitz egiten.

Tira, berak nahi duenean lagunduko dion norbait behar du haurrak. Baina ez «*orain puzzleak egingo ditugu*» edo «*abestu egingo dugu edo dantza egingo dugu guztiok*». Haur batzuei abestea gusztatzen zaie eta orduan sarriago abestu nahi izaten dute, eta abesti batekin hasten dira, eta norbait horretan sartzea eta abestia berarekin batera osatzea nahi izaten dute.

Eta zerrenda honetako azken gauza, baina ez horrega-

tik garrantzi gutxienekoa, hau da: «*Neure kabuz egin ditzakedan gauzak erakutsiko ote dizkit horrek?»*. Jakina, bi urteko haur bat «*Nik, nik neuk egin dut hau*» esateko adinean dago. Beraz, egin ditzakeen gauza horiek gauzatu egin nahi izaten ditu, eta laguntzatxo bat besterik ez du nahi izaten, eta batzuetan laguntzaileak batere eskurik ez sartzea. Baina zer egin nahi duten ziur asko nahikoa ongi dakite. Adibidez, ez dituzte oinetakoak lotu nahi, baina bai botak jantzi lokarriak lotu behar badituzte.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dut gauza hauek guztiek erakusten digutela zaintzailearen sentiberatasuna, berak haurraren alde egiten duena, haurraren ikuspegitik ebaluatu eta balioetsi behar dela. Pertsona baten portaera oso sentibera izan daiteke haur batentzat eta batere ez beste batentzat. Beraz, pertsona bat zaintzaile ona den edo ez jakin nahi duzuenean, erreparatu haurrari eta berak emango dizue erantzuna.



# Haur-eskolak ebaluatzearen a

**Marinus van Ijzendoorn**

Hurrei eta Familiari buruzko Ikerketa Zentroa  
Leidengo Unibertsitatea, Herbeherak.



LEHENIK, ESAN BEHAR DUT, NIRE USTEZ, EBALUATU EGIN BEHAR DIRELA HAUR ESKOLAK ETA BEREN KALITATEA. AGIAN EZTABAIDA SORTUKO DA ZER EBALUATU BEHAR DUGUN, ZER EZ, ZERI EMAN BEHAR ZAION GARRANTZIA, ZERI EZ... IKUSPEGI DESBERDINAK DAUDE EBALUAZIOAZ, BAINA PIXKANAKA GERO ETA KOHERENTZIA HANDIAGO ARI GARA LORTZEN. HAIN ZUZEN ERE, LORTZEN ARI GAREN ADOSTASUN-PUNTU HORIETAZ HITZ EGINGO DUT NIK, MUNDUAN ZEHAR ZER EGITEN DEN JAKIN DEZAZUEN.

**H**aur Eskolen kalitateaz hitz egin baino lehen, erabilgarri izan daitezkeen puntu batzuk aipatu nahi dizkizuet; Holandan garrantu dira, zenbait teoriaren arabera.

Zein da Holandako errealitatea? Lehenik, esango dizuet gero eta gehiago direla haurrak dituztelarik lan-munduan sartzen diren emakumeak. 1981etik 1994ra bitartean aldaketa handia eman da,

eta lan-munduan sartu den emakumeen kopurua %25 hazi da. Normalean, emakume hauek lanaldi zatituarekin edo orduka lan egiten dute Holandan, batez beste 20-25 ordu astean. Batzuek egun-

# Arrazoiak



Arizmendi ikastola. Umezaintza. Arrasate.

pare batez lan egiten dute astean eta gainerako denbora seme-alabak zaintzen ematen dute.

Euskadin, berriz, kezka orokorra dago biztanleriaren haz-

kunde-tasaz. Politikariek, haur-hezkuntzak aurrera egitea nahi badute, hazkunde-tasaren garrantzia kontuan izan behar dute. Badirudi tasa honek beherakada garrantzitsua izan duela,

haurrak izaten dituzten bikote gazteentzat laguntzarik ez dagoelako, baita ere Haur Eskoletan lekua falta delako. Horregatik, Holandako politikariak benetan ari dira arduratzen haur-eskola

hauetaz, ez horrenbeste haur-  
rrengatik eurengatik, baizik eta  
kezkagarria delako jaiotza-ko-  
puruaren jaitiera eta biztanle-  
riaren zahartzea. Alemanian,  
adibidez, gobernu berriak haur-  
instalazio eta zentroen kopurua  
gehitzeko politika du, horrela  
jaiotza-kopurua igotzeko eta  
emakumeek lan-merkatuan par-  
te har dezaten. Nire ustez, onak  
dira honelako neurriak.

Holandan gutxi gorabehera  
173.000 postu daude Haur Esko-  
letan, berezitasun batekin. Ema-  
kume gehienek orduka lan egiten  
dutenaz, haur gehienak orduka  
egoten dira zentroetan, ez egun  
osoan, eta horrela haur gehiago  
egon daiteke zentro berean.

Datu horiek guztiek aitek fa-  
milian duten zereginaz hausnar-

keta egitera garamatzate. Ema-  
kumeek egun osoan etxetik kan-  
po lan egiten duten kasuetan fa-  
milia barruko eta kanpoko zere-  
ginak aztertzen baditugu, ikusten  
da gizonak ez duela horregatik  
etxeko lanetan parte hartzea as-  
ko gehitzen. Hala ere, pixka bat  
lan gehixeago egiten dute gizon  
horiek etxean, etxetik kanpo la-  
nik egiten ez duten edota ordu  
batzuk bakarrik egiten dituztene-  
kin alderatuz gero. Dena den, al-  
daketa hauek oso mugatuak dira  
eta neurtzeko zailak.

Bestalde, aitatasunari buruz-  
ko ziurtasunik eza lotuta dago  
aita horiek beren seme-alabekin  
duten inplikazio-maila txikiare-  
kin. Suposatzen da zenbat eta  
ziurtasun handiagoa izan aitata-  
sunari buruz, prestuago egongo  
direla inplikatzeko ere. Hau da,

aita asko ez dira gehiegi inplika-  
tzen, frogaturik dagoelako aita-  
tasuna akzidentala dela edo ez  
behintzat amatasuna bezain ziu-  
rra.

Guk amaren eragina azpima-  
rratzen dugu, beraiek direlako  
haur txikien zaintzaile nagusiak  
eta atxikimendu-sorburu nagu-  
siak. Baina, atxikimenduaren te-  
oria oinarritzat hartuta, haurra-  
ren aita ere gure azterketan kon-  
tuan izan beharko genukeela us-  
te dut, gizarte-desberdintasunak  
islatu ez daitezen gure ikerketa-  
lanetan. Uste dut kontuan izan  
behar direla muga hauek gure  
azterketaren emaitzetan, zeren  
eta, amaren/aitaren rola alde-  
rantzikatzen diren familietan,  
atxikimendu-figura nagusia aita  
izaten dela ikusten baita.



Arizmendi ikastola. Umezaintza. Arrasate.

Haur-eskoletako zainketari buruz, interes handiko emaitza bat azpimarratu nahi nuke, aspaldi samar egindako azterketa batekoa. Azterketa hau duela 20 urte hasi zen, eta bertan etxetik kanpo lan egiten duten eta ez duten amak alderatzen dira. Kanpoan lan egiten dutenak astean 15 ordu baino gehiago egiten dutenak dira. Datuetan ikusten denez, atxikimenduaren ziurtasunari buruz ez dago desberdintasunik bi taldeen artean, hau da, etxetik kanpo lanik egiten ez duten eta kanpoan lan egiten duten amen seme-alaben artean. Beraz, lehenengo azterketan ez da eragin txarrik ikusten atxikimenduaren garapenaz etxeko lanetan ari diren edota kanpoan lan egiten duten amen seme-alaben artean. Haur horien berorien jarrera egin dugu bizitzako laugarren urtean, benetan zer gertatu zaien jakiteko, edota ba ote dagoen ezer azpimarratzekorik amak etxeko lanetan edo etxetik kanpo aritzearen ondorioz. Haur horien garapen kognitiboa eta agresibitatea neurtuz, Haur Eskoletara joaten diren haurrek emaitza hobeak dituzte garapen kognitiboari dagokionez eta aldi berean oldarkorragoak dira etxeko lanetan geratzen diren amen haurrak baino.

Nola liteke etxetik kanpo lan egiten duten amen haurrek emaitza hobeak lortzea hizkuntzaren edo ezagutzaren garapenean? Hona hemen arrazoi bat izan daitekeena: haur-eskoletan duten kanpo-estimuluak behartu egiten duela haurra bere jarrera besteen aurrean garbi uztera, eta, beraz, beharturik dagoela hizkuntza erabiltzera eta hizkuntz trebetasunetan aurrera egitera lagunekin eta hezitzaileekin komunika-

tu ahal izateko, aita-amekin baleude egingo ez luketen moduan. Bigarren, gizarte-maila edo estatus apalagoetatik datozen haur askok haur-eskolatik kanpo garatuko litzuketen baino maila apalagoan garatzen dituzte hizkuntz trebetasunak.

Uste dut honelako emaitza beste azterketa askotan ere ikusi dela; hau da, kanpoan lan egiten duten amen haurren agresibitatea ulertzeko, kontuan izan behar da haur hori beste haur batzuekin dagoela eta garbi utzi behar duela bere posizioa eta taldean sartu, talde horretan bere lekua aurkituz, eta gatazkak konpondu behar dituela beretzat eta taldearentzat asegarri izateko moduan. Haurrak gatazkak bizi ditu eta horiek konpondu beharra sentitzen du; lortzen ez badu, gerta liteke etsipena eta frustrazioa sortzea, eta horrek agresibitatea eragitea. Beraz, baliteke haurrek, taldean daudenez gero, hobeto ikastea beren jarrera ezartzen.

Bigarren azterketa haur-eskoletan zentratzen da. Hemen atxi-

kimendu-sareetan sakondu dugu. Haurren eta amen arteko lotura beste lotura batzuekin osa ote zitekeen jakin nahi genuen: hezitzaileekin, adibidez. Lehenik, ikusi dugu haurra ziurtasunez lortzen dela amarekin eta aitarekin, baita hezitzaile nagusiarekin ere, honek elkarrekintzarako aukera izan baldin badu, gutxienez hiru hilabetez, nahiz eta hobe litzatekeen gehiagorekin. Ikusi dugu egoera arrotzetan, haurrak zain-tzaileei atxikitzen zaizkiela. Halaber, ikusi dugu atxikimenduharreman hauek ez dutela zirikusirik beren artean. Haurrak izan dezake lotura ziurra zain-tzailearekin, adibidez, eta, aldi berean, beste atxikimenduharreman batzuen kalitatea aldatu egin daiteke eta, adibidez, anibalentea izan aitarekin eta iheskorra amarekin. Beraz, atxikimendua erabat alda daiteke kasu batean eta bestean —konbinazio askorekin— eta ezin izan da iragarri edo aurrean amarekiko edo aitarekiko harremanak bakarrik kontuan izanda. Ikerketa honetatik ondorioztatu dugunez, haur-eskola ez da berez erabakigarria ziurtasun-eza horretarako.



Arizmendi ikastola. Jose Arana. Eskoriatza.

Bestalde, jarraipenari dagokionez, desberdintasunak daude Israelen eta Holandaren artean. Israelgo kibbutzetan hezitzaileen figurak garrantzi handiagoa du, haurren eta hezitzaileen egonkortasun eta jarraitutasuna ematen baita, Holandan ez bezala. Hezitzaileekiko atxikimendu ziurrek horien prestakuntzarekin eta horien aukeraketarekin dute zerikusia. Bestalde, haurrek eta hezitzaileek elkarrekin emandako ordu-kopuruarekin ere izan dezake zerikusia. Beraz, hezitzaileek denbora behar dute haurrekin ohitu eta trebatzeko. Beraz, bizikidetzadentzora luze samarra atxikimendu ziurrekin loturik dago. Israelen badirudi hezitzaileak hobeto moldatzen direla klase ertaineko familietatik datozen haurrekin. Gainera, dirudienez, hezitzaile gazteenak dira ingurune horietan hobeto lan egiten dutenak. Baliteke giro hauetan lan gehien egin duten hezitzaileak jada nekatuta egotea hainbeste haur zaindu izanagatik, eta agian batzuetan sentiberatasun gutxiago izatea zaintzen dituzten haurrekiko.

Bestalde, hezitzaileak sentiberagoak izan daitezke haur bakar

batekiko elkarrekintzetan bere gurasoak baino. Taldean, zailagoa gerta dakieke sentibera agertzea.

Ratioa —hezitzaile bakoitzeko haur-kopurua— ez zen aldagai esanguratsua izan. Berdin dio hezitzaile batek lau, bost edo sei haur izatea bere ardurapean. Holandan arau batek ezartzen du hezitzaile bakoitzak zenbat haur izan ditzakeen adinaren arabera. Dena den, ona da adinik goiztiarrenetan, 0-3 urte artean, ratioa egokia izatea adinaren arabera. Ratio hori 4, 5 eta 6 hurrekoa da hezitzaile bakoitzeko. Datu horiek oso onak dira, Israelgoekin alderatzen baditugu, han ratioa 8 eta 10 artekoa baita hezitzaile bakoitzeko. Honek guztiak ez du zerikusirik amarekiko edo aitarekiko atxikimendurekin, ezta ere sexuarekin edo hezitzailearen esperientziarekin. Azkeneko hau kezagarria da, esperientzia handiagoko hezitzaile profesionalak ikusi nahiko genituzke eta, aldi berean haurren premiei erantzun eta atxikimendu-lotura ziurragoa sor dezaketenak.

Haur-eskolek atxikimenduan duten eraginari buruzko eztabai-

daz, AEBn atxikimenduaren teoriarin oinarrituta egindako lehen azterketek arrisku bat erakusten zuten: ziurtasunik gabeko atxikimendu iheskorrak garatzeko arriskua haur-eskoletan ordu asko ematen zituzten haurrengan. Beraz, haur-eskolen kalitateaz ziur egon behar dugu, onena izan dadila, ahalik eta onena ziurtasunik gabeko atxikimendu horiek garatu ez daitezten. Hauxe da, hain zuzen ere, artikulu honen oinarria.

Zein da haur-eskolen kalitate egokia? Nola eragiten du kalitateak haurrearen garapenean? Nola ebaluatzen da? Nik esango nuke kalitatea neur daitekeela eta neurtu egin behar dela arrazoi askorengatik. Arrazoi nagusia, gurasoek eskubidea dutela eta jakin egin behar dutela zer-nolako kalitatea eskaintzen dien haur-eskolak beren seme-alabei. Zaila da kalitatea ona den edo ez ikustea gurasoek seme-alaben bila joaten direnean bakarrik. Horregatik, arlo honetako profesional garenok beharturik gaude kalitatea ebaluatzeko tresnak garatu eta erabiltzera, beren seme-alabentzat zer hezkuntza eta zainketa alternatibo edo laguntza nahi duten aukeratu beharrean dauden guraso horiengatik besterik ez bada ere. Kalitateari dagokionez, erraza da definitzea, haurra hartzen badugu abiapuntutzat. Garrantzitsua da jakitea nola esperimendatzen dituen haurrak talde baten barruan hezitzaile profesionalak ematen dizkion zainketak eta hezkuntza. Haur Eskola baten kalitatearen oinarria haurra erreferentzi puntutzat hartzea da. Ikuspegi horretatik, kalitatea ebaluatzeko edozein tresnak abiapuntu hauek izan behar ditu: batetik, haurra-



Arizmendi ikastola. Jose Arana. Eskoriatza.



ren ongizatea, estresik gabe, *in situ*, eta bestetik, luzerako eta etorkizunerako ikuspegiarekin haurraren zenbait alderdi (motorra, kognitiboa...) garatzea. Haur bakar batek zentroan duen eguneroko errutina islatu behar du tresna horrek. Etxetik datorenean haurrari egiten zaion harrera behatuz hasi beharko luke, eta trantsizio-une horretan gurasoek zenbat denbora ematen duten aztertu beharko luke. Tartertxo horretan, ba al dago behar hainbat asti beraien arteko komunikaziorako? Inbentarioa egin genuen ikusteko normalean zenbat denbora ematen duten elkarrekin gurasoek eta hezitzaileek haurrari buruz hitz egiten, eta ikusi genuen, zoritxarrez, gutxienekoa dela, gehienez ere minutu batzuk egunean. Ni konbentzitu-

rik nago hau aldatu beharra dagoela etxearen eta haur-eskolaren artean trantsizio ona lortu nahi baldin badugu, eta etxean gertatutakoaz hitz egin beharko genukeela: nola lo egin duen haurrak, zer moduz dagoen, etab. Uste dut oso ona dela honetaz Holandan egiten dena, hau da, egunkari bat egitea etxean gertatzen denaz, baita Haur Eskolan gertatzen denaz ere, haurraren esperientziak deskribatu eta trukatu ahal izateko bi ingurune edo bizigiro horien artean. Hau da, gurasoek eta hezitzaile profesionalak izan dezatela modua jakiteko zer gertatzen zaion haurrari Eskolara iritsi baino lehen.

Azken honek etxearen antzeko ingurune edo bizigiroa

izan beharko luke, kalitatea ebaluatzeko prozeduren bidez egiaztatu beharko litzateke, eta jarraitutasun edo segida beharko litzateke haur bakoitza zaintzen dutenen sentiberatasunean.

Alde batetik, babesa eta diziplina azpimarratu behar dira, baina sentiberatasunez. Bizpahiru urte dituenan, diziplina-premia edo haurrak egiten duenari mugak jarri beharra baliteke era desberdinetan gauzatzea, baina guk diziplina hori sentiberatasunez gauzatzea nahi dugu. Sentiberatasuna da haur-eskolaren kalitatea neurtzeko muina. Eta horrek hezitzaileak haurraren gatazkak nola kudeatzen dituen, mugak nola jartzen dizkion aztertzeraz garamatza.



Arizmendi ikastola. Umezaintza. Arrasate.

Bestalde, haur-eskolan eguna bukatzean gurasoenganako trantsizio ona azpimarratu behar da. Horretarako komunikazioa behar da: hitz egin beharko litzateke eta, noski, horretarako astia behar da. Gurasoei dagokienez, nik uste dut askotan ez dutela komunikatzeko astirik.

Zainketen kalitatea neurtze-ari dagokionez, bi mailatan egin daiteke hori: alde batetik, egitura-mailan: konponketa guztiak, talde-harremana, hezitzailearen

presta-  
kun-

tza... haur-eskolako prozesuan eragin dezaketenak; eta bestetik, prozesu-mailan, talde barruan gertatzen dena haurren artean edota zaintzailearekin.

Neurketa dezente egiten da kalitateari dagokionez. Hamarkada asko dira burdinazko triangelua erabiltzen dela, eta hori zentroetan haurren zainketen egiturazko alderdien inbentario xume bat da: pertsonen arteko erlazioa, ratioak, etab.

Prozesu-mailako kalitatea bi tresnaz neurtzen da, batez ere. Horietako lehena ITERS-ECERS da (talde-mailan) eta bigarrena ORCE (kalitatearen ebaluazioa haur bakoitzaren

mailan). Hamarkada batzuk badira tresna horiek munduan erabiltzen direla, eta uste dut oso inteligentea eta zuhurra litzatekeela tresna horiek Euskal Herrian ere erabiltzea.

Gero baditugu beste neurketa batzuk, HOME bezalakoa, familiarako zainketen kalitatea ebaluatzeko, eta aldaketa txiki batzuekin horiek taldean erabiltzeko ere presta daitezke. Familiaren sentiberatasuna ebaluatzen da, elkarrekintza, haurrek eskolan duten talde-giroa eta, azken batean, zaintzailearen eta haurren arteko erlazioaz hitz egiten duen tresna ona da. Ongizateari buruzko galdeketa ere badira, haurrak eskolarekiko duen gogobetetasunaz galdetzen dutenak.

Bestalde, atxikimendua ebaluatzeko, Q-Sort aipatu behar da. Haur txikiak taldean duten atxikimendua neurtzen du. Badugu esperientzia zaintzailearen eta haur bakoitzaren arteko atxikimendua neurtzen.

Baina, orain, lehenik ECERS-ITERS delakoaz arituko naiz eta ORCE delakoaz gero. ECERS-ITERS Haur Eskolan erabiltzen da eta zenbait alderdi ebaluatzen ditu: lekua eta altzariak, jolas-materialak, zainketa pertsonalak: janaria, biao edo siesta... zentroaren programa, langileak, bilera-gela, nola estimulatzen den garapena, nola konpontzen diren gatazkak, etab.

ECERS eskalak 7 azpi-  
eskala ditu: zainketa pertsonalaren errutina, altzariak, arrazoitze-esperientziak hiza-  
kuntzarekin, trebetasunak, sorkuntza-ekintzak, garapen soziala



EPSTEIN, J., ZAJ, (1985). *Le Enjeu: Adultes, Enfants: vivre ensemble en collectivité*. Paris: Armand Colin - Bourrelier.

eta helduaren premiak. Item bakoitzak 7 puntuko eskala du: 1 desegokia, 3 gutxienekoa, 5 ona eta 7 bikaina.

ECERS 2,5 eta 5 urte arteko haurrentzat dago prestatua; ITERS, berriz, tresna bera da, baina 0 eta 2,5 arteko haurrentzat egokituia.

Uste dut adin hauekiko interesa duen edonork honelako ebaluazio-tresnetan prestatu behar duela bere burua. Arlo honetan espezializatu eta lan egin behar duten pertsonen curriculumaren osagai izan behar dute tresna hauek.

Holandan bertako haur-eskolak ebaluatu genituen ECERS-ITERS tresna erabiliz eta azkenean 4,8ko batez bestekoa lortu zen, gehienezkoa 7 izanik. Emaiza hau beste herrialde batzuetakoarekin (Grezia, Alemania, Ingalaterra, Suedia, Italia...) alderatu zen, eta Holandan baino emaitza txarragoa lortu zen guztietan. Hor ez zegoen sartuta Espainia, nik dakidanez ez baita hango Haur Eskoletan ECERS-ITERS erabili. Europako haur-eskolen kalitatea eta Ameriketakoena alderatzen badugu, Europakoek puntuazio altuxeagoa baina esanguratsua dutela ikusiko dugu. Hauxe da, hain zuzen, honelako ebaluazioen abantaila bat: haur-eskola baten kalitatea identifikatzen laguntzeaz gain, beste errealitate batzuetako beste eskola batzuekin konparatzea ere ahalbidetzen digula. Gainera, azpi-eskaletako bakoitza bereiz dezakegu eta herrialde batek beste batekiko dituen indar-gune edo puntu indartsuak zein diren ikusi. Gauza bera esan genezake haur-eskolei buruz: haur-eskola baten puntu indartsuak konpara

litezke, ECERS-ITERS eskalak azpi-eskala edo dimentsioetan banantzeari esker.

Garrantzitsua da antzeko ebaluazio-tresna batez hainbat urtez eta hainbat zentrotan egitea ebaluazioa, ikusteko ea kalitatea igotzen ari den edota, aitzitik, jaisten ari den. Urteetan zehar tresna bera erabiltzen bada, kalitatearen kausak zehaztuz eta definituz joango direla uste dut.

Aipatu nahi dudan bigarren tresna ORCE da, tresna honek haurra jartzen baitu kalitatearen erdi-erdian. ORCE hori NICHD azterketak garatu zuen eta gero 1000 haur baino gehiagorekin erabili zen haur-eskoletan. ORCEk helduaren eta hauraren arteko elkarrekintza ikusten du eta, horregatik, hainbat alderdi ebaluatzen ditu: ea hezitzaileak haurra ikertu eta interpretatzera bultzatzen duen, ea jostailuak izendatzen diren edo ez, gauzak nola egiten diren zaintzaileak erakusten duen edo ez, sentimendu positiboak, haurrak hitz egiten duenean berari begiratzeari, sentiberatasuna, sintonia,

haurrari ematen zaion erantzuna... Ikusten denez, oso bestelakoa da ECERS-ITERS tresnaren aldean.

Hainbat herrialdetako haur-eskolak ebaluatzen baditugu, konparazioak ezar daitezke, maila politikoan garrantzitsuak izan daitezkeenak. Ondoriozta daiteke ea hezitzailearen prestakuntza garrantzitsua den, ea hezitzailearen sentiberatasunak eraginik duen, ea haurraren harremanak erabakigarriak diren...

NICHD azterketa, 90eko hamarkadan egina, eta guk Holandan duela gutxi egindakoa alderatzen baditugu, ikusiko dugu alde izugarria dagoela prozesuaren kalitatean AEBren eta Holandaren artean. Egia esateko, alde garrantzitsua dago Holandaren mesedetan. Baina, berriro ere, esan nahi dut 1-4 arteko eskalarekin, ORCEren kasuan bezala, garrantzitsuena zera dela: tresnak aukera ematen digula bere ahuluneak edo indar-guneak ikusteko, eta arlo desberdinak bereizteko, gero sakon lan egin ahal izateko horien hobekuntzan.



Arizmendiko ikastola. Jose Arana. Eskoriatza.

Azken gaia taldekatze bertikal eta horizontalarena da. Nik dakidanez, Euskal Herrian zentro asko ari dira lanean nik taldekatze horizontala deituko nukeenarekin; hau da, adin bereko haurrak taldean biltzen dira eta urte bakoitzean hurrengo adin-taldera igotzen da beste hezitzaile batekin eta agian beste haur batzuekin. Kibbutz sisteman, ordea, taldekatzea bertikal ematen da. Haurrek elkarrekin segitzen dute hiru urtez lagun eta hezitzaile berekin, nahiz eta adin desberdinetakoak izan. Bi sistemek dituzte abantailak eta eragozpenak. Taldekatze bertikalak zera dakar berekin: oraindik ibiltzen ez diren haurrak jada korrika dabilzanekin elkartzea eta txikitxoentzat mehatxu fisiko izan daitezke, higiena mantentzeko egon litezkeen arazoen gain. Baina mota honetako taldekatzearen abantaila

hau da: adin desberdineko senideak dituen familia baten antz handiagoa duela eta, gainera, zainketen jarraitutasuna agian luzaroago bermatuko da testuinguru honetan.

Bitartean, taldekatze horizontalan agian posible da haurren garapen ebolutiboaren alderdi eta eginkizunetan gehiago zentratu eta espezializatzea eta haurtxoak hobeto zaintzea. Baina niri iruditzen zait atxikimenduen ikuspegitik agian ez dela hain ona. Uste dut lehen eta bigarren urteen artean gutxi gorabehera, haurrak jada egonkortu duela bere atxikimendua eta horregatik uste dut hezitzailea eta taldea aldatzea ez dela agian onena. Horregatik proposatzen dut, nahiz eta lehen eta bi urteen artean taldekatze horizontala erabili, le-

hentxeago edo geroxeago taldeen zatitzea atxikimenduen ikuspegitik egitea, haurren eta hezitzailearen artean garatzen ari den loturagatik.

Izan ere, azterketa egin genuen taldekatze bertikala eta horizontala alderatuz eta bakoitzean ematen den kalitateaz. Ez dago datu enpiriko asko bata beste baina hobea dela esateko. Bietan ECERS erabili ondoren, ez zen desberdintasun handirik aurkitu bi taldekatzeen artean. Esan nahi al du honek ebaluazioa ORCErekin eginez gero edo atxikimendua neurtuz gero, desberdintasunik egongo litzatekeela? Aurkitu den desberdintasun bakarra estimulazio kognitiboa handiagoa zela taldekatze horizontalan bertikalean baino, beharbada hezitzaileek gehiago sin-tonizatu eta egokitu ze-



zakitelako programa adin jakin bateko haurren errealitatera. Birtartean, adin desberdinetakoen taldekatze bertikalean zailagoa da programa bat sortzea estimulazio kognitiboari dagokionez. Edonola ere, ikuspegi enpirikotik ez dago kezka handirik bata edo bestea erabili, baina ikuspegi teorikotik eta atxikimenduaren teoriatik beharbada taldekatze bertikala hobea litzatekeela erakusten digu kibbutzen esperientziak, eta gutxienez garrantzitsua da banaketarik ez egotea 1 eta 2 urte arteko taldeetan.

Hauxe esan nahi nizuen Holandako azterketei buruz.

Bukatzeko, eta kalitatearen abantailak laburtzeko, esan be-

har dut kalitatearen monitorizatzeko sistematikoak joerak erakutsi ditzakeela denboran zehar, herrialde eta zentro jakin baten indar-guneak eta ahuluneak; nazio-mailan aplikatzen den politika baten joera transnazionalak ere erakusten ditu, erreferentzi puntu batzuk finka daitezke, gutxieneko estandar batzuk finka daitezke zentzuzko zainketa bermatzeko, gurasoei arrazoizko erabaki bat hartzea ahalbidetuz, eta nork bere burua monitorizatzeko aukera ere ematen du. Haur-eskoletako zuzendariak beren zentroen kalitatearen jarraipena egin lezakete, horrela hobekuntzak sartu eta gauzak egiteko modua aldatzeko. Kalitatea neur daiteke eta neurtu egin behar da. Helburu handia

litzateke Euskal Herriko haur-eskola guztien kalitatea ebaluatzea lortzea, herrialde honen premiekin bat etorritz betiere. Baina uste dut ECERS-ITERS eta ORCE bezalako tresna frogatuak erabili beharko liritekeela gutxienez. Nik ez dut dudarik, uste dut Euskal Herrian hezkuntzaren psikologoek ebaluazio-tresna hau aplikatu beharko lukekela, guk Holandan egin dugun bezala. Holandan jendea arduratu egiten da beren haurrak egoten diren zentroen kalitateaz, zer-nolako kalitatea duten jakin nahi dute eta hori neurtu dezagun nahi dute. Eta, noski, uste dut eskubidea dutela bai Holandan eta bai Euskal Herrian jakiteko beren haurrek zer-nolako hezkuntza hartzen duten.



Arizmendi ikastola. Umezaintza. Arrasate.

# Haurraren eta arteko harrem

**Josune Etxabe**

Arrasateko Bedoñabe Herri Eskolako Zuzendaria.



AZKENALDI HONETAN HAUTSAK HARROTU DITUEN GAIA IZAN ARREN, EZ DA DUDARIK GIZARTE ALDAKOR HONETAN HAURTZARDAZ HAUSNARTU BEHAR HANDIA DAGOELA; IZAN ERE, DRAINDIK BADA ZER HOBETU FRANKO IRAKASKUNTZAN, HAURREN BEHARRAK ETA PREMIAK BEHAR BEZALA ASE NAHI BADITUGU BEHINTZAT.

**F**amilia giroan gurasoek jotzen duten papera garrantzitsua dela esaten den bezala, eskolan eta batez ere adin txikiko haurrekin, irakasleonek eginkizuna gurasoen adinakoa dela kontsidera daiteke.

Hori dela eta, etengabe garatzen ari den gizarte honetan, eta betiere adinez txikienak ditugun horien eskola baldintzak hobetu nahian, haurraren eta hezitzaileen artean eraikitzen den harre-

manaren inguruan sakontzea hartu dut xede.

Jakina da haurra, eskolara etorri baino lehenago, beste pertsona batzuekin erlazionatzen dela, familia giroan. Beraz, erlazio hori nola gauzatzen den jakiteko asmoz, bidezkoa kontsideratu dut atxikimenduarien teoriaraino.

Teoria horren aitzindari Jon Bowlby dugu. Hala, Bowlby-ren ikerketek portaera behatu dute,

eta, haietan oinarritutarik, zera formulatzen du:

**“Haurrak amarekiko eraikitzen duen harremana ez da ikasitako zerbait; haurra portaera sistema batzuekin jaiotzen da, eta lotura hori gauzatzeko interesa, gogoa... berezkoa den zerbait da”.**

Horrela, portaera sistema horiei esker, haurrak lehendabiziko lotura esanguratsua amarekin edo beste pertsona heldu batekin gauzatu du, eta gero inguru

# hezitzailearen mana

hori hedatzen joango da. Aipatu autoreak *atxikimendu* izenarekin bataiatzen du harreman hori. Dena dela, haurraren bizitzan erlazio hori gauza dadin, berezkoak dituen gaitasun batzuk abian jarri beharko ditu amarekin edo beste pertsona batekin.

Gaitasun horiez gain, 0-7 hilabete bitartean garatutako *workings models* edo besteekin harremanetan jartzeko ereduaren bitartez, ama gogoratu, harekin egoteko nahia adierazi, ezagunak eta ezezagunak bereizi eta elkarrekintzei intentzionalitatea egozten hasiko da.

Horren guztiaren berri haurrak atxikimendu jokabide batzuk martxan jartzen dituelako ikusiko dugu. Adibidez, negar edo barre egingo du, keinuak eta bokalizazioak egingo ditu, lotura figura jarraituko du begiradaz, eta abar. Aurrerago, jakina denez, gaitasun motorearen jabe izango da, bere nahiak eta beharrak adierazteko, eta azkenik, hizkuntza ere erabiliko du egin-kizun horiek egiteko.

Beraz, umeak amarekin izandako elkarrekintza erabakigarria



Arizmendi ikastola. Umezaintza. Arrasate.

izango da. Hala ere, lotura hori eman dadin, batetik, aipatutako gaitasunak garatzea beharrezko izango da eta bestetik, oso inportantea izango da ama edo lotura figuraren potentzialitatea ere, hartzen duen portaera, erabiltzen duen hizkuntza mota, haurrarekin egoteko duen era... horien KALITATEAK bien arteko erlazioa baldintzatuko du. Zergatik? Haurrak helduaren presentziarik gabe ezin duelako bizirik iraun eta are gutxiago

oraindik eboluzionatu. Eredu horri esker bere buruarekiko irudia, bere garapen afektiboa, soziala, kognitiboa eta besteekin erlazionatzeko era baldintzatuko dira erabat.

Lotura figuraren erantzukizun egonkor eta egokiak ematea ezinbesteko baldintza da gure txikiengan atxikimendu segurua garatu ahal izateko. Horiei esker, segurtasuna izango du, lasai eta konfiantzarekin aurkitu-

ko da ingurua esploratzeko eta besteekin ere harremanetan jartzeko.

Hori dela eta, haurra, eskolan hasten denerako:

- Historia interaktibo baten jabe da.
- Atxikimendu kalitate batekin dator.
- Besteekin erlazionatzeko era bat adierazten du.

Horregatik guztiagatik, eskolan hasitakoan, esanguratsuak izan behar dira:

- Lotura figurarengandik banatzeko prozesua mimatzea.
- Hezitzailearen portaera.

Garbi dago hezitzailea eredu bihurtzen dela eskolan; izan ere, erreferentziazko eta konfiantzazko pertsona da haurarentzat, eta erabilitako estiloak, adierazten duen sentsibilitate mailak eta eskuragarritasunak baldintzatu egingo du haurraren garapena. Alegia, estilo propioa izateaz gain, hezkuntzari buruz duen ikusmoldeak eta egiten dituen proposamenek jokoan jarriko dute haurraren bilakaera.

Bestalde, eskolan ere hezitzailearen presentzia, laguntza, estimu-

lazioa... etengabe behar ditue-  
nez, baliabideak eta baldintza egokiak eskura jarri beharko dira, haurrari egoki erantzun ahal izateko. Haurra irabazten ahalegindu beharko da, lasai eta gustura egonda beldur erreakzioek toki utziko dietelako adiskidetasun eta esplorazio jokabideei.

Eskolak haurrari gizarteratzen lagundu behar dionez, beraiek dakarten bagajea konpentsatzeko eta aberasteko esparru izan behar du. Eskolan hartzen dituen estimuluei eta horien kalitateari esker, hezitzailearekiko lotura egokia edo desegokia erai-  
kiko du.

Irakasleak hezkuntza jardue-  
ra bideratzeko argi izan beharko ditu: kalitatezko atxikimendu segurua lortzeko inoiz ez dela berandu, haurrak bere banatze propioa eraikitze-  
ko aukera izan behar duela eta eskolako lehen kontaktu atsegin eta egituratzaile bat proposatu behar zaiola. Horregatik, irakasleak profesional-  
tasuna eta jarrera afektiboak adieraztea izan beharko du ardatz, irakastea errealitate konplexua eta ezegonkorra delako eta, tartean, haurren duintasuna jokoan dagoelako.

Arestian aipatu legez, haurraren eta hezitzailearen artean ematen den harremana

aztertze-  
ko eta aipatu  
alderdi teo-  
rikoa hez-  
kuntza

praktikan nola  
islatzen den adierazteko as-  
moz, ikerketa kualitatibo bat

egin nuen urte hasieran. Bideo grabazioen bitartez 2 urteko gelako hezitzaile baten hezkuntza jarduera aztertu nuen, gelaren egunerokotasunean hainbat egoera esanguratsu oinarritzat hartuz. Segidan bertan antzemanda-  
koa adieraztera pasako naiz.

Behaketa horren bitartez eta haurraren garapen ebolutiboa kontuan harturik, aztertutako aldagaiak honako hauek izan dira:

- Helduaren presentzia.
- Helduak erabilitako hizkuntza mota.
- Helduak haurrari eskainitako estimulazioa.
- Haurraren jokabideak.

Kasu horretan eta horiek guztietatik ateratako ondorioetatik zera esan daiteke:

Batetik, behatutako hezitzaile horren kasuan etengabe haurrekin ekintzan aritzen zen horietako zela, bera haurarentzat segurtasun, lasaitasun eta informazio iturri bihurtzen zen, etengabe haurarentzat eskuragarri zegoelako. Baina eskuragarri egote horrek ez du esan nahi soilik beraien inguruan egoten zela, aipatze-  
koak baitira berak erabiltzen zituen errekurtoak haurraren portaerari arreta jartzeko. Horien lekuko dira begirada periferikoa, haurrak behar zuenean atentzioa eskaintzea, beharrei erantzutea etab.

Irakasleak erabilitako hizkuntzari dagokionez, esan daiteke haurraren kolaborazioa eta partizipazioa eskatzen duen horietako zela. Haurra eskola dinamikan parte hartzea motibatzen zuelako, haurrak zekiena kontuan hartu eta hortik tiratzen



Arizmendi ikastola. Jose Arana. Eskoriatza.



ahalegintzen zelako eta haurra desafiatzen zuelako. Begi-bistakoa da hezitzaileak haurrarekiko zuen sentsibilitate maila, bere proposamen guztietan, une oro, haurra kontuan hartzen zuen, ekintza laburrak, beraien gustukoak, aldakorrak... haurraren ezaugarri eta erritmoekin bat zetozenak abian jartzen ahalegintzen zelako. Aipatu horiek guztiek alde aurretik pentsatu eta prestatuak izaten zituen eta horien bitartez bidaltzen zituen mezuek, ahozkoek zein afektuzkoek, haurraren garapenean eragin zuzena izaten zuten. Erabilitako ahots tonua suabea eta beti joera berdintsua izaten saiatzen zen eta egoerak aukera eskaintzen zion guztietan haurrarengana zuzendu, bere parean jarri, ukitu, hitz egin eta haurraren ekintzak ulertzeko saiakerak egiten zituelakozituen.

Hezitzailearen eginkizuna haurraren funtzio esploratzailea suspertzea eta esna mantentzea direnez, materialak eta espazio aproposak, txukunak, garbiak eta ordena baten barruan izaten ahalegintzen zen, egunerokoan eta egoera anitzetan, haur guztiengana iristeko ezintasuna eta zailtasuna izan arren.

Dena dela, ekintzen arabera helduari hezkuntza praktikan haurrarekiko izaten duen erlazioan antzematen zitzaizkion jokabideak honakoak izan dira:

- Haurra ekintzan parte hartzera gonbidatzea.
- Egin behar duena behin eta berriro gogoraraztea.
- Errefortzu positiboak luzatzea.
- Ikasle guztiak kontuan izatea, beraien izenak aipatzea.

- Auto-estimua goratzea.
- Animatzea.
- Lana baloratzea.
- Afektua adieraztea.
- Poza eta goxotasuna adieraztea.
- Laguntza eskaintzea.
- Haurrari ekintzan zentratzen laguntzea.
- Umeen sentimenduei erreparatzea eta dituzten esperientziak aintzat hartzea.
- Gaztetxoen egoera emozionalari erreparatzea.
- Autonomia bultzatzea eta berari haurrari egiten uztea.
- Egiten duen horri hitza ipintzea.
- Haurraren hizkuntza errespetatzea.
- Gelakideen arteko elkarrekintza bultzatzea.

Beraz, atxikimenduaren funtzioak haurraren biziraupena ziurtatzea eta segurtasuna bilatzea diren heinean, hezitzaile honen jokabideak, horiek aintzat hartzen eta haurraren garapen globalean eragiteko ahaleginak egiten dituela antzeman daiteke. Aldi berean, atxikimendu seguru baten aldeko apustua egiten duela ere esan daiteke, haurrarentzat segurtasun oinarri bihurtzeko saiakerak egiten dituelako eta euskarri horretatik abiatuta, haurrek ingurua esploratzen eta besteekin erlazioatzen hasten direlako.

Garbi dago, kanpotik hartzen dituzten eta poliki-poliki barneratzen dituzten estimuluen kalitateari eta gaitasunei esker, adin horretako haurrek "umetxo" izatetik gauza asko egiten dituzten haurrak izatera pasako direla. Hezitzaileak eta eskolako teltuinguruak ahalbideratuz gero, eskolarekiko duten jokabidea eta

harremana era baikorrean eraikitzen joango dira, eta geroz eta partaidetza, kolaborazio, kideen arteko elkarrekintza, hizkuntza maila... handiagoa eta aberatsagoa erakutsiko dute.

Horretarako, etengabe aldatzen ari den gizarte honetan, haurren eskubideak eremu guztietan egia bihurtzea planteatu eta aldarrikatu beharko genuke. Etorkizun hobea izan nahi duen gizarte batentzat, bermea haurtzaroan hezi eta inbertitzea izan beharko lukeelako.

## Bibliografia

Arnaiz, V (2000). *La seguridad emocional en la educación infantil*. Barcelona: Praxis.

Bowlby, J (1951). *Maternal care and mental health*. Ginebra:OMS. (Trad. Cast: Los cuidados maternos y la salud mental. Buenos Aires: Humanitas, 1982).

Bowlby, J (1969) *Attachment and Loss. Vol I: Attachment*. Londres: Hogarth Press. (Trad. Cast: El vinculo afectivo. Buenos Aires: Paidós, 1976)

Lopéz, F; Etxebarria, I; Fuentes, M<sup>a</sup> J; Ortiz, M<sup>a</sup> J. (2000). *Desarrollo afectivo y social*. Madrid: Piramide.

Ortiz, M<sup>a</sup> J; Yarnoz, S. (1993). *Teoría del apego y relaciones afectivas*. Universidad del País Vasco.

# Taldeko zaintza kalitate onarekin

**Karin Grossmann**

Regensburg-eko Unibertsitatea. Psikologia Departamentua



ZAINZAI-LEA EZAGUN ETA FIDAGARRI BIHUR-  
TU ARTE HAURRAK IGAROTZEN DUEN PROZE-  
SUA HAINBAT ASTETAKOA IZAN DAITEKE, BAI-  
NA BEHIN HORI LORTU ONDOREN, ZAINZAI-  
LEA BESTE DINARRI ZIUR BAT BIHURTZEN DA  
HAURRARENTZAT, ETA BABESLEKU ERE BAI  
EKAITZA DAGOENERAKO. HORREK HAURRA-  
REN ONGIZATEA AREAGOTZEN DU, ETA GAUZA  
BERRIAK IKASTEN SAIAITZEKO GOGOIA EMATEN  
DIO BERRIZ ERE.

**P**rozesu hori gauzatzeko, adin honetako haurraren behar edo premia bereziak izan behar dira go-goan, gaitasun kognitiboen mugak kontuan izanda betiere.

Eginkizun honetan, zaintzaileak oinarriko zenbait printzipio izan behar ditu kontuan, adin honetako haurraren psikologia osatzen dutenak.

## Haurrekin lan egiten denean kontuan izan beharrekoak

**1.-** Lehenengo komunikazio-bidea emozioen adierazpenarenarena da. Haurrek sentitu egiten dute esaten zaiena, buruz ulertu baino gehiago. Eta pentsatzen dutena esan ordez, adierazi egiten dituzte emozio positiboak edo negatiboak.

**2.-** Haurrek motibazio handia dute dena miatu eta ikertzeko, baina hori beren ziurtasun-sentimenduaren arabera dago.

Gurasoengandik banatzeak beren oinarri ziurretik banatzea esan nahi du, zaintzaileak ere ez badu behintzat oinarri zurraren estatus hori lortu, haurrari konfiantza emango dioten etengabe-ko jokabideen bidez.

# eta: n adierazle

**3.-** Haurrentzat zaila da beste haur batzuekin jolas egitea, bestearen ikuspegian jartzeko eta harekin negoziatzeko gaitasuna mugatua baitute. Eraso berezkoa denez eta sarritan arrakastatsua, haur batek besteari erasotzeko tentazioa gainditzea nahi badugu, hori berak maite duen heldu baten maitasun eta onespenagatik bakarrik egingo du.

**4.-** Haurren emozio biziek sarri emozio gatatzak sortzen dituzte zaintzailearengan. Zaintzailearengandik iristen zaien begikotasuna edo errefusapena dira haurren ongizatea edo atsekabea gehien baldintzatzen duten faktoreak.

Orain arte izan ditugun azalpenetan, luze eta zabal azaldu dira atxikimendu-portaeraren oinarriko ezaugarriak. Ongi azpimarratu dute lotura horren kalitatearena, haurrak bere lehenengo zaintzaileekin izandako esperientzien arabera. Haur bakoitzak lotura hori ezartzeko manieraren ezaugarri kualitatiboek bizitzan zehar iraungo dute, azkenean bikotearekiko maitasun-harremana ere moldatuz.

Baina hitzaldi honen gai espezifikoa sartu aurretik, orain arte beharbada baztertu samar geratu den gai bat aipatu nahi nuke: aitaren eginkizuna.

Alemanian 1976an eta 1977an gure azterketak hasi genituenean, garai hartan garbi bereizita zeuden gurasoen arteko zeregin tradizionalak: aita jotzen zen kanpora lanera eta asteburuak bakarrik zituen seme-alabekin egoteko; bestalde, ama arduratzen zen seme-alabak zaindu eta hazteaz. Hain lan-banaketa tradizionalan ere, aitaren bat mol-

datzen zen seme-alabekin denbora gehiago egoteko. Gure hasierako neurketetan elkarrekintza material batzuei erreparatu genien (adibidez, zenbat aldiz aldatzen dizkiete pixoihalak, edo zenbat aldiz jaikitzen dira ohetik biberioia emateko) eta alde batera uzten genuen elkarrekintza



Arizmendi ikastola. Jose Arana. Eskoriatza.

horren nolakotasuna (adibidez, nola jarduten zuen bere haurra-ekin elkarrekintzan edo jolasean). Baina laster hasi ginen alderdi kualitatiboei ere erreparatu: zer esan nahi duen haurrarentzat aitaren figurak eta zer izatea nahi duen haurrak.

Bi urteko hurrek beren kabuz egin nahi dituzte gauzak, ezagutu egin nahi dituzte gauzak eta solaskide gisa serio hartuak izatea nahi dute; beraz, «elkarrekintzazko erronka-jokoa» deritzan eskala hau garatu genuen. Erronkaz hitz egiten dugu bi urteko hurrek gauzak egin nahi dituztelako, konpon ditzaketen arazo txikien erronka sentitu nahi dute, eta izan ere, bi urteko haur batek, aitarekin batera, arazo bat konpontzen badu, aita oso sentibera delako izango da, benetan lagundu diolako, eta une ego-

kian iradokizun egokia egin diolako, haurrak arazo hori konpondu ahal izan dezan.

Beraz, ikusi genuen guraso batzuek oso ondo jokatzan dutela beren bi urteko hurrei erronkak aurkeztu eta laguntzerakoan; ondorioz, 1etik 9rako eskalan, hauek puntuazio altuak lortzen zituzten, eta beste batzuek, berriz, kaskarrak. Eskala horren bidez ebaluatu genituen aitaren laguntza sentibera haurren jakin-min eta ikertzeko motibazioaren aurrean, zerbait egiteko ekimenaren aurrean jasotako laguntza, eta itxaroten geratzeko aitak zuen sentiberatasuna.

Honelako portaera baten adibidea, eskalan ebaluatua, zerbait egiten hasi den haurrari honelakoak esatea da: «*Tira, segi aurrera... oso ondo... Tira, ezin ba-*

*duzu, nik lagunduko dizut*». Hone-la, haurrak hartzen du ekimena, jakinik oztoporen batekin aurkitzen bada, aitak lagundu egingo diola. Lagundu eta aintzat hartu. Adibidez, haurrak plater bat egin du eta esaten dio aitak: «*Zein ondo! Plater honekin jango dut gaur*»; hori haurrari estimua adierazteko modua da, berarekin jolas egiteaz gain. Aitak haur horrekin elkarrekintzan jardun badu bizitzako lehenengo bi urteetan, zehatz-mehatz jakingo du zer gauza berri ari den ikasten lehen zekienaren aldean. Ona da haurren lorpen berriak aitarengan poza piztea eta honek «*zein ondo!*» esanez adieraztea hori. Honela, haurra oso harro sentituko da eta oso pozik ikasi duenez. Pixkanaka bere gaitasun- eta balio-sentimendua sendotuz joango da horrela.



Arizmendi ikastola. Umezaintza. Arrasate.

Berriro bi gurasoengana itzuliz hain garrantzitsua den gai honetan, esan behar da gurasoek hurbiletik jarraitzen badute haurraren gaitasun-lortzea, oso erraza gertatuko zaiela honen zailtasunei eta premiei aurrea hartzea eboluzioaren erronka berri baten aurrean. Adibidez, plastilinaz jolasean ari den bi urteko haur bati esaten bazaio: «*egizu txakur bat*», haurrak ezingo du egin. Baina esaten badiozu «*hartu zati bat eta egin talo txiki bat*», eta hori egin ondoren esaten badiozu: «*Oso ondo, eta orain egin bi bolatxo*» eta gero «*elkar itzazu honela...*», hori bai, hori egin dezake, eta azkenean txakurra egingo du honela. Honela, urratsez urrats, pizgarri hauekin haurrak trebetasun berriak lortzen ditu eta oso ongi sentitzen da.

Gai garrantzitsu bat adin honetan urratu ezin litezkeen arauak ezagutzea da: «ez zaizu komeni plastilina jatea», «ezin duzu lurrera bota», «ezin dituzu aitaren betaurrekoak zapaldu», «ezin duzu txistua bota mahai gainean»... Gizarte-arauak ikastea da hori.

Haurra gurasoek erakutsitako arau hauek betetzeko prest egotea eta borondatea izatea, gurasoek aurreko urteetan haurraren izan duten inplikazioari zor zaio. Gurasoek esandakoa egiteko haurraren prestasuna ordura arte izan duten elkarrekintzaren eta, ondorioz, beraien artean sortu den harremanaren emaitza da. Arau horiek betetzeko edo ez betetzeko haurraren jarrera ordura arte ezarritako atxikimendu-harremanaren erakusgarri da. Eta harreman horrek, ikusi dugun bezala, gurasoen sentiberatasunean du jatorria eta haurraren

sortutako elkarrekintzetan. Eredu hori haurraren jokabide sozialaren oinarrian egongo da hurrengo urteetan: 6 urterekin, 10ekin, nerabezaroran eta 22 urterekin.

Egin ditugun azterketetan, eta aitaren zereginera itzulita, ikusi dugu aitzak garrantzi handia duela haurren garapen emozional eta sozialean. Baina —eta hau garrantzitsua da adieraztea— harreman hau bestelako neurri-tresna batez aztertu behar da, ez amaren eta haurraren arteko elkarrekintza neurtzeko erabiltzen dugunaz.

Sar gaitezen orain Haur Eskolaren eremuan. Lehenik, esaten genuen haurrak bizitzen duen prozesua, zaintzailea pertsona ezagun eta fidagarri bihurtzen zaion artekoa, hainbat aste-takoa izan daitekeela, baina behin hori lortu ondoren, zaintzailea oinarri ziur berri bihurtzen dela haurrarentzat eta ekaitza dagoenerako babesleku. Baldintza horietan, gauza berriak ikasten ahalegintzeko egoeran dago haurra.

Ikuspegi horretatik, zehaztasun handiagoz azalduko ditugu orain haurra Haur Eskolan ongi zaintzeko ezaugarriak.

## Haur-eskoletako kalitatearen adierazleak

Ondorengo azalpen honetan, haurrari kalitate oneko zainketa ematen zaiola adierazten duten ezaugarrietako bakoitza garatuko da. Objektiboak dei genitzakeen adierazleak dira. Baina bada atariko edo aurretiazko

elementu bat, eta hori gabe ezin daiteke kalitate ona eman zentro batean. Bertako langileak haurraren behaketarako sentsibilizatzea eta trebatzea da. Horregatik, hori aztertu nahi nuke pixka batean.

## A. Behaketa

Behaketa da garatu behar dugun lehenengo tresna, bai gure haurren talde-hezkuntzan inplikaturik gaudenean, baita gure zentroen kalitatea ebaluatu nahi dugunean ere. Bada portaeren behaketa bat, ORCE edo ITERS bezalako item egituratuak gidatua, eta bada portaeren behaketa naturalista bat, une jakin batean bai haurraren berarengan eta bai berdinkideekiko eta laguntzaileekiko harremanetan gertatzen ari dena ulertzeko aukera ematen duena.

Behaketa horretarako oso lagungarri gertatzen da Haur Eskolen testuinguruan gertatzen diren berezko elkarrekintzak grabatzea.

Kalitateari buruzko portaera edo jokabideak ebaluatu ahal izateko bideoan, ordu asko eman behar dira grabatzen eta ordu asko grabatutako metraje hori aztertzen. Adibidez, erakutsi ohi dudana film laburrak 30 minutuko iraupena du, baina nik 120 orduko grabazioak egin nituen bideoz. Badakizue eguna oso luzea dela hezitzaileentzat eta haurrarentzat eta gauza asko gertatzen direla: beti ez da arrakasta izaten sekuentzia esanguratsua zein den jakiteko, edo horretaz ohartu eta hautemateko. Horregatik, grabazio luze baten azterketa zehatzak, batetik, behatzeko ahalme-

na garatzeko aukera ematen du, eta bestetik, behatu nahi genituen sekuentzia esanguratsuak hautemateko.

Zentro baten kalitatea ebaluatzeko proposatzen digutenean edota zainketako profesional gisa gure funtzionamendua aztertu eta ebaluatu nahi dugunean, xumetasun eta konfiantza handiarekin hasi behar da.

Orain dela denbora pixka bat, 3 urtez azpiko haurren zainketak nola hobetu zitzaketen planteatu zidaten nire eskualdeko haur-eskolek, eta hauxe erantzun nien lehenik: «Zergatik uste duzue gaizki egin duzuela orain arte?». Hau garrantzitsua da, izan ere, beren zainketak hobetu nahi dituzten zentroak dira ongien egiten ari direnak ere.

Ondoren, esan nien: «Ikus dezagun zertan ari zareten», uste baitut jende asko berez oso egokia dela eta intuitioz bada ere ongi egiten dituela gauzak eta agian ez duela be-

har inork irakasterik gauza asko egiten. Agian behar dutena zera da: egiten ari direnaz ohartzea eta egiten ari direna ondo zergatik dagoen jakitea. Horregatik, oso ona da elkarrekintzazko denboraldi luzeak grabatzea Haur Eskolen testuinguruan, horiek aztertu eta gero zentroetara itzultzea grabaturiko elkarrekintza-zati batzuk erakusteko, gertatzen ari dena Garapenaren Psikologiaren ikuspegitik azalduz.

Hasieran elkarrekintzaren sekuentzia positiboak erakusteko joera izaten dut, ez kasu negatiboak, uste baitut jendea ez dela errudun sentiarazi edo kulpabilizatu behar. Elkarrekintzaren adibide benetan onak erakutsiz, berriak beren kabuz elkarrekintza onak gehitzen saiatuko dira. Honelako pertsonak, elkarrekintza onaren erreferentzia bat baldin badute, beren elkarrekintzak elkarrekintza positibo bihurtuz joango dira.

## B. Hezkuntzaren oinarrizko helburuak

Garapenaren garai goiztiarrotan, haurren zainketak

eta hezkuntzak oinarrizko hiru helburu dituzte garatzeko.

### 1.- Konfiantza garatzea atxikimenduaren bidez, babesturik sentituz eta zainketa samur eta maitagarriaren helburu sentituz.

Lehenik, haur hauek behar hainbat konfiantza sentitu behar dute ikertu edo miazteko gogoia izan dezaten. Haur hauek ez badaude atsekabetuta, baizik eta pozik, berehala lagun bat bilatuko dute ikertu nahi duten mundu horretan lagun izateko.

Konfiantza garatzea da hezkuntza-zeregin garrantzitsuena hain adin goiztiarretan. Haurra ezin bada jendeaz fidatu, ezin badu konfiantzarik izan bere laguntzaile maitagarri eta samur izango direla ingurukoak, hasteko, portaera erasokor eta etsaia izango du: ez baduzu bestearengan konfiantzarik eta eraso egingo dizula uste baduzu, noski, defentsa-jarrera hartuko duzu zeuk.

Eta bigarren, eta hau Sinposio osoan zehar ari gara ikusten, konfiantza hori garatzen ez



EPSTEIN, J., ZAJ, (1985). *Le Enjeu: Adultes, Enfants: vivre ensemble en collectivité*. Paris: Armand Colin - Bourrelier.

duen haurra ziurtasunik gabe sentitzen da eta ez du ikertzen. Oztoporik txikiaren aurrean, haren bilaketa edo ikerketa gelditu egingo da. Agian bilatuko ditu aliatuak bere lagunaren artean, baina, oldarkor dagoenez gero, elkar hartze edo itun horrek gutxi iraungo du eta azkenean erasoak eta hausturak izango dira.

Beste pertsona nirekin onaz izango den konfiantza garatzea erabat garrantzitsua da besteekin harreman maitekorak ezartzeko, eta ikertzeko eta ikasteko go-go sor dadin.

## 2.- Norberaren kontrola garatzea kanpoko arauketaren bidez

Haurren hezkuntzako bigarren zeregina: zaintzaileek laguntzea bere buruaren kontrola lordez.

Emozio batzuek gure antolaketa hankaz gora jartzen dute eta uneren batean geure buruaren kontrola galarazten digute. Eta hau guri ere gertatzen zaigu, helduoi. Haur bati, eta are gehiago adin honetako haur bati, askoz errazago gertatzen zaio hau. Haurrak estimuluekiko duen sentiberatasuna eta bere emozioak kudeatu edo prozesatzeko buru-gaitasuna hain handia ez denez, helduaren laguntza behar du bizitzako hainbat gertaerak berarengan pizten dituzten emozioak lantzeko.

Zaintzaileak laguntza handia eman dezake haurrak berriro lor ditzan ordena eta lasaitasuna bere emozioetan.

Norberaren kontrola edo autokontrola esatean, pertsonak bere emozioak nola kudeatzen dituen esan nahi dut, bere tes-

tinguruan kokatu eta honela lasaitzea lortzeko. Haur txiki batek ez du bere emozioak kudeatzeko gaitasunik. Zaintzaileak lagundu egin diezaiolke haurrari emozio bizi horiek, positiboak nahiz negatiboak, kudeatzen. Funtzio hau «holding» izenarekin kontzeptualizatu da: bermatu, hartu, heldu, eutsi. Zaintzaileak heldu egin behar dio haurraren emozio bizi horri, bere gain hartu eta haurraren hitz eginez bere tesuinguruan jarri; beste era batera esanda, prozesatu egin behar du. Orduan, emozioek ez diote gain hartzen haurrari, baizik eta eutsi egiten dio zaintzaileak.

Hori izu handiagorekin edota haurrak ematen dion baino garrantzi handiagoa emanez erreakzionatzearen aurkakoa da; hau da, haurra asaldatzen den baino gehiago asaldatzearen kontra. Haurraren atxikimendu-fi-



Arizmendi ikastola. Umezaintza. Arrasate.

gura horiek haurren emozioak hartu, eutsi eta gero berarekin prozesatzen dituzten neurrian, haurra barneratuz joaten da zaintzailearen jarrera hori bere emozioen aurrean: emozioak entzuten ikasiko du, konfiantzaz bere gain hartu eta ulertzen, ekaitz emozional desordenatu batean sartu ordez.

Zaintzailearen laguntzaz bere emozioak asumitu eta prozesatu ondoren, haurra beste haurrekin egoteko egoeran aurkituko da berriro, eta jolas, miaketa eta ikas-kuntza-zereginetan hasteko prest.

### **3.- Motibazioa eta norberaren buruarekiko konfiantza lantzea, erronka egokien bidez.**

Baina nola sortzen da haurraren baliotsua izatearen eta

zerbait egiteko trebea izatearen sentimendu hori? Zeren eta ez baita gauza bera baliotsua eta trebea izatea eta norbera horrela sentitzea. Pertsona asko oso baliotsuak dira eta gauza askotarako trebeak dira eta, hala ere, ez dira baliotsuak sentitzen, eta trebeak diren sentimendurik ere ez dute. Gauzak oso ondo egiten dituzte, arrakasta handia dute egiten duten guztian eta, hala ere, tentsioan bizi dira eta beren arrakasta hori zorte onari bakarrik egotzen diote.

Nola sortzen da haurraren bere baliorearen eta trebetasunaren sentimendu hori? Egiten duena balorazio positiboarekin berari itzuliz. Haurren ispilua bere gurasoak dira eta bere munduko pertsona esanguratsuak, besteak beste, irakasleak. Horien begiradan aurkitzen duenean be-

ra egiten ari denaren isla, eta isla hori argitsua bada, onespen eta harrotasunezkoa bada, haurra trebea eta baliotsua sentitzen da, eta bere buruaren irudi hori pixkanaka barneratu egiten du.

Esan dugun bezala, haurrak emozioen bidez komunikatzen dira eta bestearen mezu erreala bere emozioen bidez hartzen dute. Bere ereduaren aurpegi, begi eta gorputzaren espresioaren bidez hartzen du haurrak bestearengan sortzen ari den irudia. Haur txikiak ez dira hitz artean galtzen, baizik eta berehala ohar-tzen dira eta sentitzen dute egiten ari direna —eta beraz, euren burua— miretsia ala gaitzetsia den. Haur bat ez dago engainatzerik, baina haziz doan neurrian gai da itxurak egiteko helduak sentiarazi nahi diona sentitu dela adierazteko. Horregatik da oso



Modenako eskola bat.



garrantzitsua zaintzaileak aztertzea bere esku dituen haurrenganako bere jarrera.

## C. Oinarrizko premia afektiboak Haur Eskolaren testuinguruan

Haurra ongi eta gustura senti dadin Eskolan eta ikertzen eta ikasten has dadin, zaintzaileek haurraren oinarrizko premia batzuei erantzun behar die.

Jarraian, bere garapenaren premia hauek aztertuko ditugu:

### a. Haurrak zaintzailearen laguntza behar du, gurasoengandik banatzeko mementoaren estresa gainditzeko eta oinarri ziur bat aurkitzeko

Haurra, batez ere hasieran, ongi hartua izan arren, beldur da pertsona eta leku ezezagunez osaturiko giro berriaz. Normala da amaren zangoei helduta ikustea. Behar hainbat asti hartzen bada, amaren edo beste senideren baten aurrean, agian haurra jolasean hasiko da berari erakarri zaion zerbaitekin. Baina agur esateko unea iristen zaionean, haurra ziurtasunik gabe sentitzen da eta ez du nahi izaten ama joaterik. Ordurako gerta liteke haurrari ezagun gertatzea hezitzailea eta honek besoetan hartzea. Orduan, hezitzaile honen beso bero eta maitagarriek erraztu egingo dute banaketa. Haurra, kontsolatuta, beste haurrekin harremanetan eta jolasaren bidez ikerketan hasiko da. Zaintzaileak, haurraren oinarri ziur be-

rriak, amaren eta eskolaren arteko trantsizioa erraztuko du.

### b. Haurrak oinarri ziur bat behar du eskolan

Haurra izutzen denean, edo min hartu edo lur jota dagoenean, oinarri ziur bat behar du, berak onartua eta babestua sentitzeko. Ukipen fisikoa eta hitz maitagarri batzuk aski dira haurraren asaldua baretzeko eta egiten ari zen jarduerara itzultzeko.

Baina hau posible izateko beharrezkoa da haurrak bere oinarri ziur gisa aukeratu duen zaintzaileak eskola horretan egonkor irautea. Zeinahi dela ere arrazoa, zaintzaileak, zeini loturik baitago haurra, sarri aldatzen bada, haurra ez da gai beste lotura bat ezartzeko muga batetik harantzago. Orduan, haurra bere kasa utzia geratzen da eta berak bakarrik moldatu beharko du bere estresarekin.

### c. Haurrak laguntza behar du gatazketan

Taldean haurrak gatazketan sartzen dira sarri eta laguntza behar dute erasoaren eta bakartzearen dinamikan ez sartzeko.

Demagun haur bat —Eric deituko dugu— lasai-lasai itzulpurdiak egiten ari dela koltxoian, eta ohartzen dela neskatala bat —Sophie—, bera baino zaharxagoa, bere zapata hartu duela eta berarekin jolasean ari dela. Haurra asaldatu egiten da, haserretu eta negarrez hasten da. Bi hezitzaile daude gelan: bata neskatalarengana doa eta bestea negarrez ari den mutikoarengana. Bi urteko haurrak, gatazka batean, ezin dira arrazionalak izan: ezin

dute argudiatu eta eztabaidatu arazoa konpontzeko, hau da, biek nahi dutela jostailu bera. Emozioak bizi-bizi dituzte, besoak astintzen hasi dira eta berehala ekingo diote erasoari; beraz, edozein gatazketan lehenengo emozio-maila jaitsi behar da, gatazka kudeatu ahal izateko.

Eric-en hezitzaileak besoetan hartu du, eta kontsolatu egin du haserrezko emozio horiek arintzeko; gero, gertatu dena aztertzen hasten dira hezitzaileak. Haurrek ezin dute hori egin, haserre baitaude eta aparatatu kognitiboa oso mugatua dute gainera, baina egin dezakete hezitzaileek lagunduta. Kontua da Sophiek ez diola oinetakoa lapurtu: hori oker egotzi dio mutikoak. Orain, lasaitu direnean, oinetakoa Erici itzultzeko adierazten diote hezitzaileek Sophieri. Egia esateko, jada ez du interesik oinetako horretan. Eta neskatoak ez du eragozpenik hezitzaileek esandakoa egiteko.

Mezua hau da: haurren emozioak asko igo badira mailaz, oso zaila da gatazka kudeatzea. Horregatik, lasaitu eta jaitsi egin behar da erasotzailearen maila emozionala, eta eraso jasanean duen haurra lasaitu eta kontsolatu egin behar da. Emozio negatiboen maila jaitsi ondoren bakarrik has daiteke elkarrizketa. Uste dut hau eredu ona dela gatazkek eta eraso-egoerak konpontzeko.

Edota taldeko jolas batean —puzzleak egiten, adibidez— gerta liteke indartsuenak dena beretzat hartzea, eta beste bi haurrak atsekabetuta geratzea beren parte-hartzea eragotzi zaielako. Aurreko egoeran bezala, haserre eta

etsipenezko emozioak gehituz joango dira negar batean eta bakar-tuta bukatu arte. Orduan, zain-tzaileak egin behar duen lehenengo gauza guztien emozio-maila jaistea da; «jostailurik» gabe geratu direnak kontsolatu eta gero erasotzaileari zera esan behar dio: «Ez al da hobe izango puzzle hori denon artean egitea? Hobeto eta errazago egingo dugu, eta ondo pasatuko dugu denok».

Honela bada, bigarren adibide honetan, lehenik haurrak lasaitu behar izan dira eta horien emozioak baretu, eta gero gatazka kudeatu, egoeraren ikuspegi berriak argudiatuz, eta lankidetzazko jarduera batera bideratu.

Beraz, ikusten dugu haur txikiak laguntza behar dutela gatazka kudeatzeko, beren gaitasun mugatuekin ez baitira horretara iristen; emozio-maila jaitsi, zaurituak kontsolatu eta gero, uler-

tzeko moduko hizkeraz, arazoari aurre egiteko bide berriak eskaini behar zaizkie.

#### **d. Haurrak beste haur batzuekiko jolasaz gozatu behar du eta irakasleak gidatu behar du ikasten**

Haur bakartuen arazora garmatza honek. Haur batzuek erraz egiten dituzte harremanak beste batzuekin eta erraz hasten dira jolasean elkarrekin; beste batzuek, ordea, bakartzeko joera dute.

Hona hemen eskolan sarri gertatzen den egoera bat. Demagun Camille deritzan neskatila bat dugula. Gainerakoak oso ondo ari dira jolasean eta bera erretiratuta dago. Armairu handi batean sartu eta han geratu da eserita. Hezitzaile batzuek diote: tira, neskatila lasai dago, oso haur ona da. Labur esanda, ez dit lanik ematen.

Baina arreta handiagoz aztertzen badugu, Camille arropa zuputzen ari da, bera bakarrik izkintxo batean sartuta. Hezitzailea sentibera bada, ohartuko da haurra ez dagoela atsedenean eta la-

sai, bakardade handian baizik. Eta horrela, berarengana hurbilduko da, armairutik irten nahi ote duen galdetuko dio eta besoak eskainiko dizkio. Eta Camille, pixka batean duda-mudan egon ondoren, irten egingo da eta ez dio axola izango lepoan hartzea.

Arreta handia jarri behar da bakartze-portaera horretaz ohartzeko, taldeak oso zaratsuek baitira, eta haurrak batetik bestera ibiltzen dira zalapartaka. Haur lasai eta isila oso eroso da hezitzailearentzat, baina haur «lasai» batzuk ez daude batere lasai barrutik: bakartuta daude, triste, ez dakite zer egin. Horretaz hezitzaileak ohartu behar du, haurrak dauzkan adierazpideen bidez.

Irudikaturiko egoera honetan, oraindik zerbait ikertzen ari zen agian Camille, baina bere aurpegiari pixka bat erreparatuz gero, ez du adierazten armairua ikertzen ari denik. Bere keinuak ez daude zerbait zehatza egitera bideratuta, baizik eta galduta bezala. Bere atorrari haginka ari da. Keinu horiek bakartuta dagoela gertatzen dira: gatazka-porterak dira edo helbururik gabeko jokabideak. Keinu horiek neskatila taldetik benetan bakartuta dagoela adierazten dute. Bere aurpegian eta keinuetan ez da igartzen gauza zehatz batengana-ko arretarik. Gauza jakin batekin diharduela adierazten duen arrastorik ez dago.

Hezitzailea hurbiltzen zaionean zerbait garrantzitsua gertatzen da: bat-batean norbait hizketan ari zaio gutxienez eta horrela bere bakartze-egoeratik irtetzen hasten da neskatila. Ez daki ziur zer egin behar duen, bai-



EPSTEIN, J., RADIGUET, C. (1982). *L'explorateur nu*. Editions universitaires.

na gutxienez bada norbait arreta jartzen diona, berarentzat esan-guratsua den norbait: berriro ezarri da atxikimendu-portaera eta, iradokizun eta laguntza txiki batekin, neskatala berriro sartuko da taldean eta parte hartuko du jarduera horretan. Atxikimendu-portaera berriro ezarri ondoren, Camille jolas bidezko bilaketa edo ikerketara itzuliko da, beste haurrekin elkarrekintzan.

Gai honen izenburuan, «irakasleak gidatu behar du ikasten» esan da.

Irudikaturiko egoera honetan, zaintzaileak ez du tiraka eta arrastaka armairutik atera, eta ez dio neskatilari bere agintea ezarri, baizik eta berari laguntzeko prest dagoela adierazi dio: hurbildu egin zaio, hitz egin dio eta ekimena hartzeko aukera eman dio, esanez bezala: «niregana etorri nahi baduzu, ni hemen naukazu. Ez dizut tira egingo, ez dizut helduko, zuk erabaki beharko duzu etorri ala ez».

Beste egoera batean, baina gai berari jarraituz, demagun bi urteko bi haur jolasean dabiltzala jateko jolas sinbolikoan: batak besteari jaten ematen dio eta gero bat-batean burutik behera ura botako diola ikusiko dugu. Beraiek asmatu dute rol-joko hau eta gozatzen ari dira. Izan ere, burutik behera ura botatzeko keinu hori 16 bat aldiz egin dute eta oraindik ere jolasaz gozatzen ari dira.

Egoera honen aurrean esango genuke: mesedez, ez eragotzi edo oztoporik jarri, oso jolas entretenigarrian, are jolas sinbolikoan, murgilduta baitaude. Hortaz, berriro esan behar dugu: haur bat ongi ari bada jolasean eta bestee-

kin lankidetzan, hezitzailearen zeregina begira egotea eta jolasaren jarraipena egitea da, tartean esku sartu gabe. Baina bakartze-portaerak ikusiz gero, Camille-ren kasuan bezala, orduan hezitzaileak laguntzeko prestasuna adierazi behar dio haur horri.

Irudikaturiko adibide honetan, etengabe ari dira barreka bi haur hauek, behin eta berriro errepikatuz keinua. Beraiek erabakiko dute noiz bukatu. Jolas bera, behin eta berriro errepikatua, beste argudio bat da niretzat programarik ez ezartzeko, ezta ordutegi finko bat ere haurrentzat. Beraz, soberan daude honelako planteamenduak: egunero goizeko 11etan dantzara joango gara denok eta 12etan denok bazkaltzera. Jokabide hau ez da agian adin-tarte honetarako egokia.

### **e. Haurrak harro sentitu behar du, egiten ari dena aintzat hartuz Haur Eskolako zaintzaileak bere autoestimua igoarzen duenean**

Goretsi hitzarekin, lehen nioenez, haurrak egindakoa familian edo Haur Eskolan balioetsi egiten dela esan nahi dut; adibidez, «Platera egin duzu! Bazkaltzeko erabiliko dut hau» esanez. Bestela esanda, zaintzaileak izen handi bat eman dio haurrak egin duen gauza txiki bati. Honela, haurra-  
ren lan edo ekintza goretsi egiten da. Eta honek haurra-  
ren balio-  
sentimendua garatzen du, eta bere autoestimua osatzen duten elementuak garatzen ditu.

Lehen edo bigarren mailako zaintzailea elkarrekintzan jardun bada haurrarekin lehenengo bi urteetan, zehatz-mehatz jakingo

du zer gauza berri ari den ikasten lehen zekienarekin alderatuz. Lehenengo adibide bat: ibiltzea edota aulkira igotzea ez da zer-bait berria bi urteko haurrentzat, baina «elur-panpina» esatea, adibidez, zer-bait berria izan daiteke haur batentzat eta ezaguna beste batentzat. Eta zaintzailea horretaz konturatzen bada eta «ederki!» esaten badio haurrari, hau oso harro sentituko da eta ikasi duenaz oso pozik.

Hau azken atalean esaten nuenarekin loturik dago; «haurrarekin» egoteko zaintzailearen jarrerarekin, berak hasten dituen ekimenak balioetsiz.

Imajina dezagun beste egoera bat. Talde bat dantzan hasten da eta ibili ezin diren eta erritmoari jarraitu ezin dioten txikienak zaintzaileek besoetan hartzen dituzte eta guztiek batera dantza egiten dute. Hau txikienak kulturaren —kasu honetan herri bateko kulturaren— jolasetan sartzeko modua da. Kontuz egin behar da, zeren eta txikienekin gerta liteke esku-sartze bat izatea; adi egon behar da ea haurrak erritmo horretan parte hartzeko gogorik adierazten duen edo ez. Sartzen bada, joko-arauak ikasten hasteko modua da.

Sarri gertatzen da haur txiki guztiek azkar sartu eta parte hartu nahi izatea, «orain niri tokatzen zait» edota «orain denok bueltak ematera» adierazten duten keinuak eginez. Zaintzaileak haurren eskabideak kontuan hartzen baditu, haur berriek ongi etorritzat hartuko dute keinu edo jarrera hori.

Irudika ditzagun beste zenbait egoera. Hezitzailea abesti

bat kantatzen ari da bizpahiru haurrentzat, letra bereziarekin bakoitzarentzat, gitarra lagun duela, eta bakoitzaren izena esaten du txandaka. Lehenengo, Ursularentzako abestu du: hau lau hankan iritsi den neskatila txiki bat da eta, bere izena esanez, adierazten du dantza egin deza-keela eta pozik gainera. Ursulak badaki berari ari zaizkiola abesten, eta, beraz, saltoka dabil, gozutzen. Gero, gainerako haur guztiak hurbiltzen dira, eta beren izena aipatzea espero dute, eta beren bertsoa kantatzea. Haur bakoitzari zerbait berezia kantatzen dio, berari dagokiona edo ezagun zaiona.

Noski, ezin dute letra ulertu, baina konturatzen dira nori ari zaion kantatzen zaintzailearen jarreragatik eta beste haurren keinuagatik: hor dago zutik harro-harro eta bere autoestimuz pozarren. Eta zergatik? Bat-batean abesti baten protagonista delako, eta nori ez zaio gustatzen berari buruz abesti bat kanta diezaioten? Talde osoa hezitzailearen inguruan biltzen da.

Orain haur bat ikusten dugu zutik, taldean sartu gabe: arazok ditu sozializatzeko orduan. Baina bat-batean hurbiltzen hasi da: oraindik periferian jarraitzen du, baina keinu horrekin zera esaten ari da: «nik ere nahi dut abesti bat». Hezitzailea ohartu da horretaz eta abesti bat kantatu dio berari. Horrela, haurren jarreran zegoen nahia jaso du zaintzaileak, eta horrekin haur horren nahia adieraztea erraztu du, ez baitzuen adierazteko konfiantzarik. Hezitzaileak jokabide hori errepikatzen badu haurrak keinuarekin bere nahia adierazten duen bakoitze-

an, azkenean haurrak hitzez adieraziko du, bere nahiak ongi hartuak direla sentituko baitu. Lehenengo eta bigarren zaintzaileen zeregin garrantzitsu bat horixe da: hurrei beren nahien adierazpena erraztea.

Hurrei beren premiak argi eta garbi adierazten laguntzen bazaie eta Haur Eskolako maisu-maistrek premia horiei sentiberatasunez erantzuten badiete, Garapenaren psikologoak bat etorriko dira erakunde honek kalitate oneko zainketak eskaintzen dituela eta haurren premia emozionalak errespetatzen dituela onartzerakoan.

Laburpen gisa, Haur Eskola baten kalitate onaren adierazleen zerrenda emango dizuet orain. Horieta biltzen dira esan nahi izan dizuedan guztia.

## Taldeko zainketen kalitate onaren adierazleak

### 1.- Hurrek Haur Eskolara joateko gogoia dute.

Lehenik, badirudi haurrak benetako gogoia duela Eskolara joateko. Baliteke haur batzuk horren aurka agertzea, baina leku atsegina baldin bada, joan egin nahi dute bertara.

### 2.- Hurrek helburu batera bideratutako jolasa dute: ez dira ibiltzen noraezean helmugarik gabe.

Nolabait ere, hurrek helbuerekin jolas egiten dute, eta ez dago gehiegizko bakartze-portaririk.

### 3.- Hurrek sarri jolas egiten dute elkarrekin. Oso eraso gutxi ikusten da.

Paraleloan ere asko jolas egiten dute, normalean txikitxoak ez baitira onak lankidetzan jarduteko, baina puzzlearen kasuan ikusi dugun bezala, batzuetan jardun daitezke lankidetzan. Eta, noski, haginka egiteari, tximatatik tiraka edo bultzaka eta kolpeka jarduteari dago-kionez, nahiago dugu horrelako eraso gutxi ikusi.

### 4.- Hurrek hezitzailearengana jo eta hitz egiten diote, honek erantzun, babestu edo lagunduko dielakoan.

Guretzat garrantzitsua haurrak jiratu eta hezitzaileekin hitz egitea da. Dagoeneko ikusi dugu hainbat aldiz, eta horrek erakusten digu erantzun baten zain daudela, erantzun baten eta laguntzaren zain.

### 5.- Haurrak atsekabeturik dagoenean hezitzailearengana jotzen du, kotsola dezan.

Ebaluazio-elementu hau oso garrantzitsua da guretzat, eta ez dakigu zergatik baina ez dute sartu NICHD azterketaren irizpideetan. Baina guri, atxikimendua ikertzaile garen aldetik, funtsezko elementua iruditzen zaigu haurren zainketen kalitatea ebaluatzeko, alegia, haurra atsekabeturik dagoenean bere zaintzailearengana hurbiltzea lasaitasun eta kontsolamendu bila. Hau konfiantzaren adierazle bat da eta, beraz, loturaren kalitatearena ere bai.

## **6.- Hezitzaileak arrakasta du gatazka batean bitartekari denean bere inpartzialtasuna galdu gabe.**

Haur Eskola baten kalitatean funtsezko garrantzia duela iruditzen zaigu hezitzaileak portaera gatazkatsuak interpretatzeko beharrezko ezagutza izatea, eta gatazka batean moderatzaile eta bitartekari izateko gaitasuna izatea, zuzentasuna urratu gabe betiere. Gerta liteke batzuetan erasotzailea bakkarik ez izatea arazo nagusia: agian etsita egongo da edota agian aldez aurretik beste norbaitek eraso egin dio berari gu ohartu gabe. Lehenik, emozio horien bizitasuna motelduz — ikusi dugun bezala— hezitzailea gai izango da agian gertatu

dena ulertzeko eta horrek eragindako portaera-sekuentziak interpretatzeko. Erasoa zigortzerakoan oso oldartsu jokatzen bada, agian ez da ikusiko nor zen zintzoa eta nor gaiztoa eta, batez ere, zaintzaileak ezingo du aztertu portaera-sekuentzia, behar bezala orientatzeko.

## **7.- Zarata gutxi eta kontzentrazioa eskatzen duen jolas asko**

Haur gehienak ez dira gai kontzentrazioarekin jolas egiteko inguruan zarata handia baldin badago. Eta hori haurren pertzepzio-sentiberatasunagatik gertatzen da. Zarata handiak batere bereizi gabe estimulatzen du haurraren pertzepzio-aparatua eta bere portaera nahasten du.

## **8.- Emozio positiboak nagusi dira taldean. Etsaitasuna nekez ematen da**

Ez da mementoa guk positibotzat jotzen ditugun emozioak negatiboen aldean nagusi izateak haurren harremanak garatzeko duen garrantziaz eztabaidatzeko. Baina hori erraz nabaritzen den zerbait da. Jokabide eta emozio positibotzat hartzen ditugu lotura sortzen duten guztiak: eskaintzak, irribarreak, zerbait egiteko lankidetz... labur esanda, maitasunaren eta adiskidetasunaren ingurukoak eta loturak sortzen dituztenak. Jokabide eta emozio negatibotzat lotura eta lankidetzak hausten dutenak hartzen ditugu: mehatxuak eta erasoak.



Arizmendi ikastola. Jose Arana. Eskoriatza.

## 9.- Haur bakoitzak bere denbora propioa du eta bere kasako elkarrekintza

Haur bakoitzaren denbora espezifikokoaren kontzeptua garrantzi handiko zerbait da, eta hori adituek azpimarratu dute, Marinus van Ijzendoorn-ek, adibidez. Denboraren barne-erritmo hori, denbora kolektiboak kontuan hartu eta errespetatu egin behar du. Banako erritmoen arabera barne-denbora haur-psikologia sakon ikertzen ari den arlo bat da, eta aurrerapen garrantzitsuak egin dira. Haur bakoitzaren banako erritmo hauek kontuan izatea funtsezko egin beharra da bere ongizaterako, eta bere ezagutza- eta portaera-gaitasunak garatzeko.

Denboraren nozio horren barruan bakoitzarentzako denbora sartzen da, bere kasako elkarrekintzan jarduteko. Ez da denbora guztia programatu behar: tarte batzuk haurren elkarrekintzarako utzi behar dira, beren kasa erabiltzeko, beren gaitasuna garatu dezaten eta hitz egiten edo ematen zaizkien erantzunak ulertzeko. Hurrei beren kasako elkarrekintzarako denbora uzteak ez du esan nahi hezitzaileak kanpo geratu behar duenik, baizik eta alderantziz: distantzia egokitik, zaintzaileak berezko elkarrekintza horiek zaindu egin behar ditu, elkarrekintzan dituzten zailtasunetan haur bakoitzari laguntzeko.

## 10.- Ez da estereotipiarik antzematen mugimenduetan edo bokalizazioetan

Estereotipo asko ikusten badugu taldean, kezkatzekoa da. Oihukako portaera asko ikusten badugu atentzioa eman nahi du-

telako da. Batetik bestera korrika ibiltzea, aulkitik salto egitea, jolasak ez badira, portaera estereotipatuak dira: mugimenduzko eta portaerazko automatismoak dira, haurraren asmoak helburu batera zuzendu gabeak.

## 11.- Oso gutxi dira atentzioa emateko jokabideak besteentzat gogaikarri direnak

Haurrek era asko dituzte atentzioa emateko era negatiboa. «Era negatiboa» esan nahi du agresibitatez edo larderiatsu atentzioa ematea. Osagai horrek bihurtzen du besteentzat gogaikarri haurraren atentzio-eskea. Osagai agresibo edo oldarkorra esatean portaera erasokorraren keinu eta ahoskatze edo bokalizazio guztiez ari gara. Atentzioa emateko jokabide hauek tentsio-giroa sortzen dute gelan, azkenean hainbat eraso-modutan bukatzen baitira. Beraz, horrelako portaerak ahalik eta gutxien izatea komeni da, arretarik jartzen ez zaielako haserre dauden haurren seinale baitira.

## 12.- Hezitzaileak elkarrekintza gehien kontrola du. Prest dago elkarrekintza eta behaketarako, baina ez du eskua sartzen (eta ez dago txortxor berrikeretan beste hezitzaileekin)

Garrantzitsua da taldean gertatzen ari den guztiaren jarraipena egin ahal izatea hezitzaileek. Beraz, taldearen tamaina ezin daiteke handia izan.

Eta beretzat ere denbora behar dute. Beren artean hitz egiteko denbora behar dute, baina hurrekin daudenean, noski, hurrei arreta gehiago eskaini beharko liekete eta ez beren artean berrikeretan jardun.

Tira, hauxe izan da nire azalpena Psikologia Esperimentalaren diogenaz Haur Eskolako zainketen nolakotasunari buruz. Espero dut kasu zehatz batzuen azalpen honek lagunduko zizuela oinarri teorikoa ulertzen eta praktikan jartzen.



Arizmendi ikastola. Jose Arana. Eskoriatza.

# Haurrekin irakurtzeko



**G**ermán Sánchez Ruipérez Fundazioak argitaratu duen gida-txo honetan, haur eta gazteentzako 26 liburu azaltzen dira. 26 liburu zoragarri adin guztientzat: liburu aberatsak, maitagarriak, hondohondora heltzen diren istoriak, sinbolismoz beteak, poesia adierazleak. Arte, literatura eta bizitza.

Liburu bakoitzak darama testu esplikatibo txiki bat, irakurleari, gurasoei, irakasleei edo liburuzainei zuzendua.

Gida hau lagungarria izan dakizuela!



Esna amets egiteko...



Bakarrik ez egoteko...



Oparitzeko...



Edozein momentutarako...



**m**  
**MONDRAGON**  
**UNIBERTSITATEA**

---

HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA